



Faustino Etxebarria

NOR GARAN AZALDU



AUSPOA

10184
GAS-128/67



EUSKALTZAINDA

Arabako Ordezkaritza

NOR GARAN AZALDU

Auspoa Liburutegia
208

Auspoa Liburutegia
EDITORIAL AUSPOA

Plaza Santa María, 2 - Tolosa (Guipuzkoa)
Tfno. (943) 67 12 82

Faustino Etxebarria

NOR GARAN AZALDU

Bertsoak

Auspoa Liburutegia

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)
Fotokonposatzalle: Cometip fotocomposición, s.l. - Pamplona
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S.L., Estella (Navarra)
ISBN 84-7158-141-8
Depósito Legal: NA. 1.231-1990

ITZAURREA

Faustino Etxebarria bertsolaria 1917 urteko otsaillaren 14'ean jaio zan, Dimako Indusi aranean, Zamakola auzonean, Etxenausi baserrian.

Gurasoak, Andres eta Felipa izan zituan, eta zazpi neba-arreba izan zirean: Luzio, Biktoriana, Dionisia, Felisa, Feliziano, Faustino eta Julian.

Etxenausi baserritik Dimako plazara lau kilometro ta erdi dagoz. Orregaz esanik dago Faustinoen aur denbora zelangoa izango zan mendibaserri aretan: eskola gitxi eta bearrean laster asi.

Alan, amabi urtegaz aitak pastore imini eban autzakaz. Uda partean Eskuatx mendian ibilten zan; neguan, barriz, etxe inguruan, geienetan beintzat.

Aitak etxean kantatzen zituan bertsoak, jairen bat zanean-edo. Baiña San Antoniotan Urkiolara joandakoan, bertsoapel-moltso bategaz etorten zan beti. Beste jai batzuetatik be ekarten eban.

Faustinok, barriz, papelok artu ta mendira eroan, auntzakaz ebilen bitartean bertsoak kantatzeko.

Kantatu ez-ezik, buruz artu be bai. Ta ortik asi zan bertsoa zer zan ikasten.

Gaur be gogoan ditu zer bertso zirean aietako batzuk: markesaren alabarenak, Azken Juizio-koak, Paulino Uzkudun'enak, Santa Jenobebarenak, eta abar ta abar.

Jende aurrean Urkiolan kantatu eban lelen goz, amasei urtegez, lagun arteko eta pagopeko bazkal oste baten.

Urrengoa, barriz, jaioterrian, Bermeoko Esteban Uriarte bertsolariagaz, a Dimara etorritako egun baten.

Amazazpi urtegez, aitik baso-lanera eroan eban, ikatz egostera eta abar. An, barriz, bear asko eta bertsoarako umore gitxi.

Ondoren, gerra etorri zan; eta 1937'ko udabarrarian, berak diñon lez «kañoi txarren diarra» entzuten asitakoan etxea itxi edo ebakuatu egin bear izan eban famili guztiak; eta urrengo, kintak deitutakoan, fusila artu, lelen go alde batetik eta gero bestetik. Baiña etxera osasuntsu etorri, Jaunari eskerrak.

Bertsoak ez eben gerra denboran balio andirik. Orain, ordea, egun triste aietako gomutapenak eraginda, bertso asko ta asko jarri ditu gai orretzaz, irakurleak ikusiko dauanez.

Gerra ostean, barriro be baso-lanera ikazgintzan eta egurgintzan. Baita ikatzak, egurrak eta zulak ara ta ona eroaten be.

Domeka-arrastietan tabernara, Dimako Indusin; eta iluntzetan ia beti bertsoak izaten zirean.

Balentin Enbeita eta Basilio Pujana bertsolariakaz kantatu izan eban Diman, eurak bertarra etorrita.

Bizkaiko Bertsolari-Txapelketa egin zan 1960 urtean. Abuztuaren 14'ean, Zeanuriko eliminatorian, antxe azaldu zan Faustino Etxebarria be, eta txapeldun atara. Epai-maikoak, Aita Martzel, Alfontso Irigoien, Zeanuriko Manterola abadea ta abar izan ei zirean garai aretan.

1946 urteko azaroaren 30'ean, Dimako Bargondia auzoko alaba dan Inazia Barrenetxea'gaz ezkondu zan Urkiolako eleizan, eta Dimako plazako etxe baten bizi izaten jarri. Bost seme-alaba izan dituez: Maria Rosario, Jose, Juan, Jesus eta Maria Isabel.

Seme-alaben ikasketak zirala-ta, Gasteiz'en bizi izan zirean urte batzuetan. Ondoren, barriz, Galdakaora aldatu.

Erretiroa artuta dago gaur gure Faustino. Baiña leengo lepotik burua, bertso-zaletasuna bizi-bizirik jakiña, eta bertso jartzeari ekin eutson orain lau bat urte. Egunik geienetan zer edo zer papeleratu, gaur irakurleari eskeintzen dautsogun moltsoa osotu arte.

Beraren oraingo langintza orren barririk nik ezer be ez nekian. Jakin arazi eustana izan zan, ordea: Juan Manuel Etxebarria adiskidea. Milla esker berari.

Ori bai: liburu au ez da Faustinok nai ordurako azkar agertu. Parkatu dagidala arren eskatzen

dautsot. Baiña denporaren faltaz izan dala badaki berak be, ta ez borondate eskasez.

Orain urte batzuk Balentin Enbeitaren bertso-liburua argitaratu genduan. Basilio Pujanarena ondotik. Gaur, barriz, Faustino Etxebarriarena. Orain urte batzuk plazako bertsolariak Bizkaian ugaldu zirean legez, bertso jartzailleak be alantxe egiten ari direala esan nai dau onek.

Gure izkuntzarentzat albista txarra ez dala derizkiot. Euskeraren mesedetarako, jakiña; eta denbora berean *nor garan azaldu*, liburu onen izenburuak diñon lez.

A. Z.

NI NEU NOR NAIZEN

Faustino Etxebarria naz, Diman, Indusin, Zamakolako auzoan jaio, bertan azia eta bizia ezkondu arte guztian; eta Diman bizia iruroge ta bost urtera artean. Orain jubilatuta Galdakaon bizi naizena eta liburu-bertsook egin dodazena.

1/ Ni neu nor nazen esaten noia
bertso oneitan jarria,
gure Bizkaiko baztartxo baten
Dima da nire erria.
Etxenautia dauka izena
jaio nintzan baserria,
liburu ontan bertso-egille,
Faustino Etxebarria.


- 2/ Diman Indusi aldekoa naiz,
auzoz Zamakolakoa,
auzune onen erdian dagon
etxean jaiotakoa.
Eskolarikan en nun ikasi,
gazterik lana naikoa,
nire idatziak txarto badoiaz
gutziz naiz errubakoa.
- 3/ Gure etxean etzan derrigor
eskolara joatea,
gazte-gazterik tokatu jatan
langillea izatea,
aita ta ama pobreak ziran,
eurai laguntza ematea,
eskola barik pasatu neban
gazte denpora maitea.
- 4/ Amaika urte nituaneko
aita-sumeak batera,
basoan egur-langille eta
ikatzak egositera.
Illundu eta joaten giñan
txabolan lo egitera,
da lantzean bat etxera etorri
janaria eroatera.

5/ Gero tamalez Euskal-Erriko
gerra zantarra atara,
erderarikan jakiñik gabe
ni joan nintzan gerrara.
Aita ta ama be ebakuau ta
aldegin ortikan ara,
ganadu danak galduta baña
pozik etorriak gara.

6/ Ostera bere batuak giñan
gerra amaitu zanean,
anai guztiok etxera eta
aitaren aldamenean.
Basoan ikatz ta egur egiten
jarduten giñan lanean,
olan denpora emoten gendun
danok aitan esanean.

7/ Inaziagaz ezkondu nintzan
biak bat izan gaitean,
bost seme-alaba doguz azita
poztasunagaz betean.
Neska bi eta mutillak iru
izanik euren artean,
orain guztiak ezkondata dauz
nor bere etxe maitean.

8/ Galdakaon ni bizi naz orain
emazteagaz batean,
jubilatuta nago ni eta
pozikan onenbestean.
Seme-alabak ez dira bizi
geure etxetik apartean,
laguntasuna euki dagigun
bizi geraden artean.



Faustino Etxeberria Bertsolaria.

ANAI ARTEKO GERRATEA

Danok dakigunez, gerrak urten eban 1936'ean. Militarrek sublebatu ziran, Gobiernua bateti eta eurak besteti. Euskadin gobiernuaren aldera lotu giñan. Eusko Jaurlaritzagaz gengoan Bizkaia eta Gipuzkoa. Araba bestekaldean egoan. Gipuzkoa be laster galdu gendun, eta onela lotu zirean gure aurkako frentea: Berriatua, Markina, Eibar, Intxorta mendiak, Kanpanzar, Udala, Anboto, Aramaio, Elosu eta Gorbaie eta Urduñagaz.

1/ Milla bedratzireun da ganera
oge ta amazpian,
apirillaren lelengoa zan
Billarrealko mendian,
gure aurkako militar orreik
burrukan asi zirian,
gu be geurea zaintzeko barriz
gerturik egon giñian.

- 2/ Jeneral Mola arro asi zan
bere indar guztiakin,
kañoia asko, gizonak bardin,
ganera egazkiñakin.
Gure indarra norañoko zan
ak asko ez eban jakin,
mendi guztiak bete zituan
ainbeste milla illakin.
- 3/ Gure arrate edo trintxera
apurtu edo ondatu,
gero andikan Oletabaso
guztiak euskuzan artu.
Otxandio be eskuratu ta
Bizkaiko lurrean sartu,
Saibeganean zer ein bear zan
guk be ez geuntsan parkatu.
- 4/ Saibegan ori kendu euskuen
burruka asko egiñaz,
ze indar asko euren aldeti
kañoi eta egazkiñaz.
Menditxo ori galdu gendula
eta egon giñan miñaz,
ez gendun ori galduko ba guk
bagiñan indar bardiñaz.

5/ BARRIRO bere artu genduen
atakatzeko ordena,
a geuregandu ein bear zala
lendik galdu genduena.
Ainbeste anaik bizia galdu,
orrek emon euskun pena,
baña ezin egon beti galtzean
odol bizia daukena.

6/ *Arana Goiri* batalloia zan
burrukan sartu benetan,
arrapau eban Saibegan ori
baña asko zan illetan.
Gure kapitan Felipe bere
ilda geratu zan bertan,
geiago ezin ikusi bera
emen lur eder onetan.

7/ Zenbat ildako Saibeganean
nok daki oin esateko,
menditxo ori gure eskuetan
ordu batzuk egoteko?
Ainbeste anai errubakoak
momentu baten ilteko?
Egun bateko jabe giñean
urrengokoan ixteko.

- 8/ Apirillaren amalaua zan
barriz guk artu genduna,
ezin lai aztu iñoiz burutik
ainbeste ildako eguna.
Gure kapitan Felipe danok
gutziz genduan laguna,
andik aurrera faltako zan ba
beraren berotasuna.
- 9/ Saibeganagaz galdu zirean
Altun eta Barazar be,
gudari orreik orduan lotu
ortik defentsarik gabe.
Urrengorako esperantzarik
gure anaiak ez dabe,
euren aldetik ikusiagaz
gauzea naikoa grabe.
- 10/ Orain urrengo burrukak ziran
ortxe Elgeta aldian,
etzan ainbeste gogortasunik
Udala deitxon mendian.
Gu be zer giñan erakusteko
giñan adore andian,
baña egazkin orreik etorri
ainbeste indarren erdian.

- 11/ Intxortan ziran andikan laster
atake bildurgarriak,
mendiok galtzen penaz ikusi
zituan gure erriak.
Moro-mordoa erorten bazan
arin ekarri barriak,
ona ilteko etorritako
gizajo errukarriak.
- 12/ Gero oge ta iruan ziran
Azentzioko mendian,
zenbat batalloi ete zirean
Mola'tarren alderdian?
Egazkin txiki alkabuetea
etorten zan goizaldian,
gero urrengo barka nausiak
bonbak bota geure erdian.
- 13/ Kendu euskuzan Kanpazar eta
Elgetarekin Intxorta,
atzeratu gu egin giñean
tretxu batzuek artuta.
Naikoa tiro egin genduan
alderdi orreitan bota,
alan da bere bajatu giñan
mendi ederrak galduta.

14/ Batalloi *Ibaizabal* egon zan
ordu tristeok bitarte,
ia urte bat osoan berak
andik emon eban parte.
Zauritu asko izan zituan
da ildakoak aparte,
azkenean be «Agur, Elgeta
-esanik-, urrengorarte».

15/ Berriz-Olakuetan izan zan
prisioneroen lana:
komandante Iñaki Lizarte
periodista bigaz zana,
gudari-mordo bataz ganera
gerran ibili izana,
ormaren aurka fusilatzeke
arloan jarri zirana.

16/ Onei bizia salbatuteko
rekete bat zan medio,
oneik anaiak zirala eta
il ez egiteko oindio.
Rekete ak biotz ona eban,
orretzek eutsen balio,
nik bera ikusiko baneuke
eskua emongo neuskio.

17/ Markiña aldetik bere etorren
frentea aurrera arluan,
alkabueak goiz guztietan
dana inguratzen zuan.
Gure Bizkaian notezi txarrak
entzuten ziran orduan,
eta ortikan laster batean
Durango galdu genduan.

18/ Lekeitio eta Durango itxi,
Zorrontzarako bidean,
beste aldetik Gernika eta
Bermio izan zirean.
Batalloi batzuk lotu zirean
Sollube aldamenean,
oraindiño be Bilbo zaintzeko
esperantzagaz giñean.

19/ Bermiorantza ortik genduan
esperantza apur bat artu,
italiano-mordo aundi bat
genduan akorralatu.
An aien aurka eiteko barriz
guztiok gengoan gertu,
prisionero erori bear
edo itxasoan sartu.

20/ Batalloi *Itxasalde* bere an
egin zan gogorrik jarri,
komandantea Bitor genduan,
agintari agurgarri.
Itxaso bistan italianoak
lotu ziran errukarri,
portu ondoan areik egozan
oso estu eta larri.

21/ Italiano agintariak
asi zirean dardarrez,
Elantxobera anka egin eben
prisaka bildur zantarrez.
Naiz-ta gu baño millaka gizon
geiao zirean indarrez,
oraindik bere aurkitu ziran
indar geiagon bearrez.

22/ Gerra-barkuak etorri ziran
arei lagun egiteko,
egazkiñak be ugari ziran
guri bonbak botateko,
gure gudari zintzo ta onak
atzera bialduteko;
Bermio ori pena genduan
iñon eskuan ixteko.

23/ Durangotikan Euba ganera
gure urrengo saltua,
Euba ganeko San Migelen be
barriro gendun tratua.
Menditxo ori txikerra baña
odol askogaz nastua,
geurea zana zaindutearren
ainbeste indar batua.

24/ Alde batetik batzuek eta
besteak beste aldeti,
alkar ilteko armak artuta
burrukan gengozan beti.
Dana tiroa edo zarata
aurreti edo atzeti,
menditxo ori geurea zan da
itxi iñori zegaiti?

25/ Alkar ilteko menditxo baten
bazan ainbeste jenio,
gizonak ilda alboan eta
tiro ta tiro oindio.
Gure burruka dana izan zan
aitu eziñaren medio,
ango mendiak baiño odolak
ez al zun geiao balio?

26/ Urrena barriz Lemo-atxean
galdu zan mutil ederrik.
gure alegiñak lurrak zaintzeko
danak zirean alperrik.
Beste aldetik egazkin asko,
gu gudariak bakarrik,
eutsi ein gura ta ezin eutsi
naiko gendun zoritxarrik.

27/ Baña tamalez ogei ta seian
galdua zan Lemo-atxa,
ainbeste indarri aurka egitea
ori oso gendun gatxa.
Gure ganera egun danetan
etorriten zan ekatxa,
norbere laguna ildakoan
bildurtuten zan bakotxa.

28/ Lemo-atx ori barriz artzea
eukiten gendun goguan,
gau batzuetan burrukatu guk
ea artuten genduan.
Baña ezin artu izan genduan
atx ori lengo moduan,
obeto preparatu giñean
artzeko urrengokuan.

- 29/ *Batalloi Rebelión de la sal
Rosa de Luxenburgo*'kin,
eta batalloi *Barakaldo* be
nasturik egon eurekin.
Preparamentu aundia egin
gendun geure kañoiekin,
ainbeste indar guk zelan gendun
eurak ez ebien jakin.
- 30/ Ekainak iru zituan goiza,
zortzirak aldera juan,
iru-lau batalloi batu giñan
goia artzeko arluan.
Erditik eta alboetatik
burruka emon genduan,
atx ori geuregandu genduan
ordu beteko plazuan.
- 31/ Amaika t'erdietan fazistak
kontraatake eta saltsan,
ango tiroak eta diarrak,
zerekin bildurtu bazan.
Gurekin an zer gertatuko zan
guztiok dardar gengozan,
alan da bere ez euskun kendu,
geuk jarraitu Lemo-atxan.

32/ Rekete bat zan, ofiziala,
jausirik lurreratua,
guregandikan metro gitxian
aurrean an geratua.
Gure kapitan batek orduan
joan ta lepoan artua,
beste obus batek jo eban baña,
bestela zan salbatua.

33/ Au egin eban kapitan ura
zauriturik zan geratu,
berak gurarik rekete ori
eriotzatik salbatu.
Orregatiño arerioa
lepoan ein eban artu,
gerratez aurka ibili arren
biotz biguna agertu.

34/ Egun bi edo iru eginda
agur or Lemo-atxari,
alkabuetea etorten zan da
bildurra geuntsan berari.
Bere ostean agertzen ziran
beste egazkiñak ugari,
da zenbat bonba bota euskuen
geurea gendun lurrari?

- 35/ Azkenez bere etorri jakun
guri egoera txarra,
gura nai gur'ez gure atx ori
derrigor itxi bearra.
Bene-benetan axe izan zan
gudariaren diarra,
-zetan esan b'ez?- euren etxean
barriz amaren negarra.
- 36/ Lemo-atx ori galdu zan eta
Bizkargi egoan puntuan,
gauza onikan ez gendun izan
buruko pentsamentuan.
Gauza txar utsak entzuten ziran,
dana ezbearra genduan,
itxi bearra Euskal-Erria
kanpotarraren eskuan.
- 37/ Bizkargin bere izan genduan
burruka izugarria,
an be gudari geureak emon
eben, bai, euren neurria.
Iñola ez gendun itxi gureko
ain mendi agurgarria,
baña izan gendun gogortasuna,
ezbearra ta larria.

38/ Lelengo kendu euskuen baiña
barrero genduan artu,
kanpokoaren aurka anaiok
oso giñean gogortu.
Geiao gu andik ataratzetik
iñoiz be ez eben lortu,
gu an itxi ta alboetatik
aurrera zirean sartu.

39/ Illak ixilik lotzen zirean,
zaurituaren diarra,
ze pena zan ba gudarientzat
alan ikusi bearra!
Geurea baiño gogorragoa
zan beste aldeko indarra,
zenbat ildakon testigu dogu
gure Bizkargi zearra!

40/ Albo guztiak aurreratatu ta
gu barruan geratuak,
Gaztelumendi ta Larrabetzu
izan zirean artuak.
Prisioneru lotuten giñan
iñon defentsa bakuak,
Bizkargi mendi ortan kontuak
olan ziran gertatuak.

- 41/ Sollubera be ekarri eben
troparik eta indarrik,
ara be alan azaldu jakun
naikoa gauza zantarrik.
Barkuak aurka, egazkiñak be,
bazan gutzat zernai txarrik,
faziosoak arma danakaz,
gu fusillagaz bakarrik.
- 42/ Gero ortikan gure indarrak
Jata mendira bajatu,
gutziz burruka gogorra gendun
mendi ortan be jokatu.
Egazkin orrein bonbardeoak
an bere genduzan artu,
baña andikan gu botaterik
ez eben ordun logratu.
- 43/ Iru-lau egun egin zirean
Jata mendiko puestuan,
da mendi ori geiao zaintzeko
ez egon geure eskuan.
Baña egunok oso zirean
ezbearrez ta estuan,
amak salduko semeak legez
bizi giñean orduan.

- 44/ Gero urrengo etorri ziran
Urresti mendi artzera,
ba burdiñezko gure garriko
on ori apurtutzero.
Gaztelumendi eta Urresti
zaintzen ziraden batera,
an ez genduan geure aldeti
gauza onikan atera.
- 45/ Goikoetxeak tranpaz egiña
izan zan garriko ori,
zelan apurtu bere abisu
emonik francotarrari.
Toki batetik errez egon da
andik eraso berari,
euskaldun batek zelan engañau
gure Euskal-Erriari?
- 46/ San Antonio egunean zan
gure defentsa apurtu,
goizeko zazpiretan asi ta
zenbat kañonazo sartu?
Egazkiñak be buelta ta buelta
euli ziraden biurtu,
arratsaldeko laurak-bostetan
Urresti eurentzat artu.

47/ Prisioneru egiñak ziran
gudari asko orduan,
makiña batek izango dau ba
egun ori akorduan.
Guk egun ori gogoratzeko
biotzez artu genduan:
prisioneru ta zaurituak
da ildakoak onduan.

48/ Aita Patxi be prisioneru
artu eben militarrek,
beste aldeko ofizialak
pistolaz egin diarrak:
«bertan aktuan afusillatu
edo entregatu armak»,
a zan kasua armarik ez ta
armak entregau bearrak.

49/ Aita Patxiren erantzuna zan:
«Emongo dautzut kontua,
kapellan naz ta tenienteren
gradua daukat artua.
Ni arma barik ibillitzeko
nintzan munduan sortua,
errosario ta liburua
dira nire armamentua».

- 50/ Gaztelumendi eta Urresti
guziak dagoz arluan,
garriko orren esperantzak ta
gureak zirean juan.
Gure erriaren ametsa bere
galdua izan genduan,
begiratu ze etorkizun zan,
anai-arrebak, orduan.
- 51/ Algortatikan sartuak ziran
Arenetatik danean,
gu, Urrestiko ondakin batzuk,
Artxanda aldamenean.
Gudari asko batuak giñan
Santo Domingo ganean,
azkenez ortxe jokatu gendun
Euskadiren izenean.
- 52/ Santo Domingo eta Artxanda
euki laizke ba gogoan,
gure gudari onok or ziran
azkenez kalbarioan.
Gerorako be esperantzarik
ez egoan oraingoan,
zapatak apurtu ta diarrez
penaz ortozik nengoan.

53/ Burruka guztiz gogorak ziran,
zan azkeneko pultsua,
mendi ortatik ikusiten zan
or gure Bilbo gaizua.
Illun da triste agerten jakun
argitasunik bakua,
agur Artxanda ta agur Bilbo
ta Ama Begoñakua!

54/ Azken bertsoa gerrate oni,
txarto esanak parkatu,
Bilbo galduta berotasunik
orain ezin dogu artu.
Anai-arrebok, danok gaitazan
eskua emonda alkartu,
lenago gerran izan giñanok
orain gaiten bakeratu.

GERNIKAKO BONBAKETA

- 1/ Gernika aldera adi nengoan,
a bai zan arratsaldea,
ikusi neban egazkin batzun
arantza etorrerea.
Bonbak bota ta egiten eben
alborantzako bueltea,
euren lana zan oraindiño be
bonba geiao botatea,
Jaunak be eskuz itxita eukan
Gernika erri maitea.

- 2/ Arratsalde a ze luzea zan,
latz eta bildugarria,
bonba ta bonba erre artean
Gernika agugarria.
An izango zan eriotza ta
zauria eta larria,
etxe jausien azpian asko
ta bonbaketa barria,
bizientzat be axe izan zan
benetan negargarria.

- 3/ Bertan il ziran andra ta gizon,
ume ta umeen amak,
jakin ete zun zer egin eban
bonbak bota zituanak?
Pekatuaren gorrotoz diraz
munduan olango lanak,
negarrik geiao ez dabe egiten
mundu ontatik joanak,
baña benetan negarrez ziran
sano geratu ziranak.
- 4/ Asko nastuta il zirean ba
abereakaz batera,
lagun izanik ganaduakaz
azken arnas emotera.
Zenbat egongo zan une artan
Jaunari dei egitera?
Kastigu ori nondik etorren
goazen agertutera,
ordena ori nok eman eban
bildur barik esatera.
- 5/ Ordena ori ba frankotarrak
orduan eudien jarri,
agindu orregaz zenbat ezbear
egin euskuen ekarri!
Jaungoiko onak jakingo dau ba
orko kaltearen barri,
illak ilda ta zauriak zauri,
sano geratuak larri,
kastigu ori etorriagaz
Gernika zan negargarri.

- 6/ Ai ze tamala ama ilda ta
semea biziz lotzia,
seintxu onek ba ezin aiturik
amaren eriotzia!
Ume txikerra ikusiten zan
Jaunan eskutik utzia,
ildako danak ixilik ziran,
zaurituen irrintzia,
testigu gara, ikusi gendun
Gernika lutuz jantzia.
- 7/ Beste batzutan umeak il da
ama bizirik lotua,
ori be bazan ama batentzat
ezbearrikan naikua,
norbere etxean bakez egonda
ganera etorrikua.
Diar ein laike egun onetan:
«Nun da gure Jaungoikua?
Nok kontsolatu leike ete ba
ama seme ildakua? ».
- 8/ Istoriara pasatuko da
Gernika zer zan orduan,
gorrotoak zer ekarri eban
frankotarren aginduan.
Ordurartean gure Gernika
erri maite bat genduan,
orrelakorik jazoko zanik
ez egon gure buruan,
an ikusiko pena guztiak
batek ezin laiz eruan.

- 9/ Batzuek iges mogitu ziran
kanpora alde egiteko,
egazkin oneik gertu an ziran
orreik ametrallatzeko.
Erru bakoak legorrik gabe
bizia salbatutzeko.
Kastigu ori nondik etorren
erri gaixoa galtzeko?
Defentsa barik derrigorrean
bonben azpian iltzeko?
- 10/ Zenbat ildako izango ziran
ez dago nire buruan,
bestela ori be ziur-ziurrik
emen iminiko nuan,
zenbat ezbear euki genduan
guztiok jakin daiguan,
zenbat disgustu artutzen duan
errubakoak munduan.
Gernika idatzita egongo da
Jaungoikoaren libruan.
- 11/ Lelengo aldikadatan bota
baeben bonbarik naiko,
azken aldean jaurti ebezan
gutziz sua emoteko.
Ordena ori gogorra zan ba
gizon batzuk egiteko,
erri eder bat iru orduan
dana lurrean ixteko,
jakituririk ez dogu bear
a zer zan sinistuteko.

12/ Bertso onegaz amaiten noa
Gernikak sutan zer zuan,
egoera ori oraindiño be
badaukat neure buruan.
Artu al dituz an ildakoak
Jaun onak bere eskuan!
Suerterik emen ez eukien ta
euki daiela zeruan,
pozez beterik izan daitezán
Jaungoikoaren onduan.

ERRIAREN NEGARRA

- 1/ Anai arteko gerra gaizto bat
Euskal-Erriko partera,
aitu eziña etorri zan da
ezin egon gu batera.
Anai batzuek beste anaiari
sartu gerra ematera,
ze irabazi izango gendun
ortik kontuak atera.

- 2/ Francon indarrak aurrera eta
etxetik urten bearra,
baserri baten bizi giñanok
ori gendun zoritxarra.
Entzuten asi giñadenean
kañoi txarraren diarra,
aitaren aitu eziña eta
gero amaren negarra!

3/ *Orden Público* izan ziranak
gure erria zaintzeko,
ordena guri emon euskuen
andik ebakutzeko.

Urrinerantza joan gaitean
eta bide bat artzeko,
sei ordu barru bizi giñean
baserria lagatzeko.

4/ Agur egiñez geure etxe ta
baserri maitagarria,
bidean jarri burdi bategaz,
ai ze bizitza larria!
Ezbear ori zala jakiñez
gerra batek ekarria,
pozez giñanak biurtu giñan
famili errukarria.

5/ Gure etxetik urten bear ta
tristetasa gogoan,
kortean ziran ganadu danak
ezin genduzan eroan.
Derrigorreko traste batzukaz
burdia betetakoan,
etxea itxi bear zan baña
ez genkian nora joan.

- 6/ Txal txikerrak be bagenduzan da
gatx zan guztiak artzean,
nausitxoena erremaletik,
beste txikerra atzean.
Lelengotarik asi giñean
ondasun asko galtzean,
nora joan gu burdia artuta
ijitoaren antzean?
- 7/ Urten genduan etxetik eta
etxe bakoan antzeko,
txal txikitxoan tratanteari
agindu geuntsan saltzeko,
bizi bearra genduan eta
diru apur bat artzeko.
Aita ta amak zerbait ein bear
gure gosea kentzeko.
- 8/ Bagoiazan gu joan da joan
geroao ta tristeago,
ta gazteenak amari esan:
»Ama, ni kantsauta nago».
Ankatxoetan miña eban ta
ezin zan joan geiago,
ezbear ori ikusiagaz
gure ama negarrez dago.

- 9/ Amak umeak zer ditun maite
asi ezkeru begira,
gauzak orrela datozanean
ziur ikusiten dira.
Zarrak askotan gu trankil baña
aman biotza dirdira,
gerrarik ez lei egon munduan
guztiak amak balira.
- 10/ Lelengo gabaz lotu giñean
danok eskape batean,
ze etorkizun illuna zan ba
familiarren artean!
Naiz-ta guztiok amantzat giñan
biotza bete-betean,
zenbat miseri ikusi gendun
emen gure gerratean!
- 11/ Gure antzera beste guztiak
orrela bizimoduan,
zenbat klaseko etorkizunak
ikusten diran munduan!
Ondasunaren akordurikan
iñok ez eban orduan,
geure bizia salbatutea
gogoan ori genduan.

- 12/ Egun bat egin leku baten da
urrengokoan bestera,
ta txikerrena beti galdera:
«Ama, noz goiaz etxera?».
Beti ostatu eske gengoan
ardi galduen antzera,
non geraturik ez gendun eta
kamiñoz segitutzera.
- 13/ Frentera nintzan ni joan gero
urteak bete onduan,
ta aita ta ama txikerrez lotu
egin zirean orduan.
Non geraturik billatu barik
bidean al dan moduan,
zenbat eraso bizimoduan
urteten diran munduan!
- 14/ Bilbo aldera joan zirean
alan nire etxeak,
suerterikan ez eutsan emon
lotu zirean lekuak.
Artu zituan leku orretan
gogor gerrate estuak,
orreik zirean gorroto baltzak
ekarritako frutuak.

- 15/ Santo Domingo pasatu eta
gurasok egotaldia,
egun gitxian izango zan an
eurentzako gizaldia.
Bertan galdurik gauza asko ta
Bilborantza joan dia,
axe izan zan areik gerratik
artuko ondamendia.
- 16/ Aita ta amak erderarikan
iñoz be ez eben lortu,
Bilbotik berantz baztartxo baten
barriz be zirean lotu.
Ezbear ori nondik etorren
areik ezin eben aitu,
pazientziaz eroateak
badau naikoa meritu.
- 17/ Beste asko be alan zirean
joan Bilboko urrera,
gauza batzuek artu ta ortik
beti joan bildurrera.
Kastigu orreik Jaunak bialdu
egingo zitun lurrera,
ez daigun euki orrelakorik
geiago emetik aurrera.

18/ Ze tristea da baserri baten
beren burdia artuta,
jan egiteko gauza batzuek
traste orretan sartuta,
batera eta bestera joan
non bizi diran aiztuta,
bakean pozez bizi ziranak
gerra andian nastuta!

19/ Olan ibili etxeko danak
bide guztiak betean,
norbere etxea onena dala
danok konturau gaitean.
Gerra zar ori etorriko zan
guztiontzako kaltean,
orrelakorik ez al da izango
barriz anaien artean.

20/ Gure etxeko gauzak galduta
gu bizirikan gelditu,
orregaitiño oso kontentu
aurrera gendun segitu.
Gerrea ona ekarrikoak
badau naikoa delitu,
orreik guztiok gure Jaun onak
barkatuko ete ditu?

- 21/ Aita ta ama etorri ziran
barriz etxean sartzera,
ekin eutsien ostera bere
bizimodua artzera.
Ezer ez euken baserritxoan
ijitoaren antzera,
gogo zintzoaz bear eginda
asi zirean atzera.
- 22/ Auntzak be ainbat genduzan eta
Jaunan eskuan itxiak,
itxaropenez egunen baten
ikusiteko biziak.
Ume ta guzti lotu zirean
etxean ondo aziak,
auntzik be etzan gero agiri,
galdu zirean guziak.
- 23/ Bertso onetan iminten noa
zer zan ebakuatzia:
gauza batzuek artu burdian
eta bidea artzia.
Arto apur bat ta erropa batzuk
zan an gure merkantzia,
osasunagaz etorri giñan,
dana ez gendun galtzia.

**ANAI ARTEKO GERRATEA
OSTERA BERE**

- 1/ Milla bedratzireun urte ta
oge ta amaseigarrena,
bake-bakean gu egon arren
gerra emon euskuena.
Gauzak orrela txarrera joan,
ori danontzako pena,
galdu genduan gure poza ta
Euskal-Errian izena.

- 2/ Uztaillaren amazpian
urten Afrika zarrean,
militar orrein pentsamentuak
ziran deseoa txarrean.
Amazortzian Españiara
zabaldurik indarrean,
igarri geuntsan aik zetozala
dana irunsi bearrean.

3/ Gure Bizkaia zaindu genduan
guk lelengo momentuan,
Gipuzkoa be geien samarra
aldeko izan genduan.
Frantziara be bidea libre
gutzat egoan orduan,
Irun aldea zelan galdu zan
oraindik dot akorduan.

4/ Araba eta Napparroa be
besten aldera sartuak,
parte txarreko militar orreik
izan ebezan artuak.
Noteziak be etorten ziran
ainbesteraño txartuak,
militar orreik zetozelako
gure kontra armatuak.

5/ Arerioak gertatu ziran
tiroka erasotzeko,
guk Frantziagaz gendun bidea
momentu ortan kentzeko.
Irabazirik eze be ez ta
asko genduan galtzeko,
gerrea nondik etorriko zan
Euskadi azpiratzeko.

- 6/ Gure artean iñor ez egon
armamenturik eukanik,
biotza gogor bakarrik zala,
ori esango dot ba nik.
Ta militarrek arma ugari
euren aldetik izanik,
esku utsakaz zelan geratu
arma gogorrek dauzanik?
- 7/ Agur Frantzia, kendu ondoren
gure legezko bidea,
orduan gutzat zerratu eben
tamalez Iparraldea.
Agur euskaldun beste aldeko,
agur gure senidea,
galdu genduan edertasuna
eta gure adorea.
- 8/ Gure gudari agurgarriak
orain zer dabe azaldu:
«Gobiernuak gure aldera
armarik ekarriko al du?». Olan
giñean emen itxoiten
ta Donostia be galdu,
aitak itxiko erri maitea
iñok ezin leike saldu.

- 9/ Gipuzko dana galtzen egoan,
au gauza penagarria,
biotzeraño sarturik neban
neure barruko larria.
Galdu kalea, galdu portua
eta galdu baserria,
ze esperantzaz lotu zan ordun
guk gendun Euskal-Erria?
- 10/ Francotar orreik arro etozan
Gipuzko menderatzean,
erri guztiak tratatuagaz
eurenak ziran antzean.
Ze izango zan maitagarritzko
euskaldunen biotzean,
erru gabeko anai-arrebak
aitak itxiak galtzean?
- 11/ Modu orretan galdu genduzan
Gipuzkoako erriak,
gure anaiak asko zirean
Bizkairaño etorriak.
Andra ta ume etxetik urten,
zer egun negargarriak,
gorrotoagaz anai arteko
gerra batek ekarriak!

12/ Momentu ortan sufridu eban
Euskal-Erriak naikoa,
gerrate ori izanik emen
iñon errazoi bakoa.
Pentsau leikean etzala izango
gizonak egindakoa,
kastigu ori ete genduan
Jaunak bialdutakoa?

13/ Donosti ori galdu ta gero
Francon indarrak aurrera,
erri batetik beste errira
egiten eben sarrera.
Gogorkeria euregan eta
indarkeria txarrera,
egun batean imini gendun
Elgetan geure barrera.

14/ Orduan artu egin genduzan
guretzat arma barriak,
ta gudariak zutitu ziran
mendan tente jarriak.
Momentu ortan gure anaiak
etziran errukarriak,
Ondarroatik Kanpantzarrera
iminirik mugarriak.

15/ Frentean olan lotu giñean
arerioa neurtuta,
gure Bizkaiko alde guztia
gudariez indartuta,
itxaso bazterretik asi ta
mendi danak gogortuta;
bildurrik bape ez genduan guk
arma barriak artuta.

16/ Negua olan igaro zan da
mendi guztiak geldian,
tirorik barik guztiak pozez
bakotxa bere alderdian.
Sarri askotan zer dan ikusi
or frente bien erdian,
gogorkeria etorriko zan
gero udabarri aldian.

17/ Arerioak eukan joko bat
ondo pentsatutakoa,
andikan laster imini eben
jaleorikan naikoa.
Billarle goiko mendian asi
ta Billarle zelaikoa,
suerte ori izango gendun
iñok usterik bakoa.

- 18/ Alemania ta Italia
militarrakaz alkartu,
egazkiñekaz bonba ta bonba
gure defentsak apurtu.
Alan da bere gure indarrak
galtzerik ez eben lortu,
ainbat ildako nunai itxi ta
lelengo mendiak artu.
- 19/ Kanpo-naziño orrexek beraz
gure kontrako bidean,
euren aldetik ainbeste indar
iminiagaz airean.
Arro etozan emengo lurak
arin artzeko idean,
osterrikook zer errazoiaz
etorri ete zirean?
- 20/ Urrin batetik etorri eta
geure anaiak ilteko,
nongo legea artuko eben
emen ori egiteko?
Errazoi bako agindu baltzak
areik ebezan beteko,
kanpotar orreik or bonbak bota
Franco dala bitarteko.

- 21/ Elgetan eta Intxortan bere
atake gogorak asi,
mundu guztiko egazkin eta
kañoiak ziran ikusi.
Bonba ta bonba, tiro ta tiro,
orrela ezin da bi^{zi},
infanteria bialdu eben
moro batalloi ta guzi.
- 22/ Intxorta mendi orretan bere
indarkeriz ziran sartu,
zenbat bonba ta zenbat egazkin,
gure arretea apurtu.
Udabarriaz batera ziran
guretzat gauzak okertu,
ilten zanari kaso egin barik
Elgeta ebien artu.
- 23/ Markiña aldera zituzten gero
tropa asko ekarriak,
militar orreik ortik zuzendu
eraso ikaragarriak.
Kanpo-naziño bi indartsuak
gure ganera jarriak,
mundu guztian aurka egozan
gudari errukarriak.

24/ Gu geunkanagaz bizi giñean,
iñori ez geuntsan zorrik,
baña geurea zaindu egiteko
naiko gendun derrigorrik.
Gudari orreik saiatu ziran
mendi danetan gogorrik,
geurea zana galdu ezkerro
gutzat ez egon legorrik.

25/ Ze ordaintzea merezi dabe
euskotar gudari fiñak?
Etxean nasai egon ziranak
ez dira izango bardiñak.
Al ziranak ta ezin ziranak
zintzo euren alegiñak,
geure erria ondo zaintzeko
mundura amak egiñak.

26/ Egazkin txiki bat etorten zan
eguna urtenaz batean,
begi bizkorrak ebazan berak
ze egon gure artean.
Barkaza andiak etorten ziran
arratsalde bitartean,
bonba andiak bota ta bota
danak kiskaldu artean.

- 27/ Alkabuetea deituten jakon
egazkin txiker orreri,
Bizkai aldean egingo eban
arek naikoa komeri.
Argazkiak be atereagaz
gure aldeari ugari,
emen zer egon ikusi eta
eroan militarri.
- 28/ Elgeta aldea itxi genduan
Durangorantza bidetan,
beste batzuek Markiña aldetik
Lekeitioko ganetan.
Txarto genbizan eutsi ezinda
Bizkaiko mendi danetan,
egun guztian bonben azpian
ta atakatu gabetan.
- 29/ Gure anaiak zirean ortik
umezurtzaren antzeko,
nongo errua izango eben
kastigu ori artzeko?
Euren sasoirik ederrenean
mendan lurperatzeko?
Erria maitatzearen truke
euren odola galtzeko?

- 30/ Gerra zantarra etorria zan
egun batean gugana,
erru gabeko anai-arrebak
kastigatuko zirana.
Zoritxar ori nondik sortu zan
ez da naikoa esana,
ezbear ori izango zan ba
Jaunak guretzat emana.
- 31/ Jeneral Mola emen zebillen
gure aurka agintari,
indarkeria bazan agandik
Euskal-Erriari ugari.
Ak ganetikan gaizki egin beti
emengo gudariari,
egazkin batek ordaindu eutsan
gero bizitza berari.
- 32/ Ortozik nintzan mosu zikiñez
Enekuri gallurrean,
esperantzarik inondik barik
defentsa bako lurrean.
Gure aldea oso triste ta
kontrarioak aurrean,
poztasun gitxi biotzean da
dana galdu bildurrean.

33/ Bilbo galdu ta oindik berantza
sartu Santoña aldea,
indarririk barik lotu izan zan
gure abilidadea.
Euskal-Erria orduan gendun
esperantzarik gabea,
andik aurrera ez izateko
bere lurraren jabea.

34/ Gerra orreri agur eginda
armak guk entregatzeko,
Santoña deitxon inguru ortan
beste bide bat artzeko.
Biotzean min andia gendun
geurea zana galtzeko,
apaltasunez dana itxi ta
presondegian sartzeko.



Etxenagusia baserria.

SIMON BERNARDO DE ZAMAKOLA'RI

Simon Bernardo de Zamakola'rentzat noa bertsoak agertzen, non jaio zan eta nola bizi.

1/ Simon Bernardo de Zamakola
nor zan esatera nua,
milla zazpireun da berroge ta
emeretzian jaiua;
eta eguna zan agoztuan,
illa orren ogeikua,
Indusi Zamakolan jaioa
ta Diman bateatua.

- 2/ Simon Zamakola non jaio zan
ori libruetan dago,
neu be etxe ortan jaioa naiz
baña asko geroago.
Etxe bateko semeak gara,
zerbait alkartuta nago,
oin bertso oneik idatziagaz
izango naiz ba geiago.
- 3/ Santiago ta Maria ziran
Simonen aita ta amak,
amar anaie-arreba ziran
ortikan jaio ziranak.
Apaiz, eskribau edo jakintsu
izandu ziraden danak,
agurgarrizko frutuak ziran
guraso orreik emanak.
- 4/ Simon Bernardo Zamakola zan
geien deklaratu zana,
Gernikan Junta-etxean sarri
berba asko egin ebana,
errian alde lan egiteko
gogo bizia eukana,
Bizkaiarentzat nondik ondo egin
ori zan aren afana.

5/ Milla zazpireun laroge eta
bostgarreneko urtean,
Simon Bernardo ezkondu zan ba
garairik ederrenean,
Maria Diaz de Basurto'gaz,
lagun eiteko danean,
bizitza on bat eroateko
San Balentingo etxean.

6/ San Balentingo palazioa
Diman beretzat ein zuan,
ermitatxoa aurrean zala,
erregearen moduan.
Bere gelatik urten gabarik
mezea zeukan eskuan,
altara eta santutegia
danak aurrean zituan.

7/ Eskribau zan lez gauzak artezten
Gernikara joaten zan,
bere erria zaintzeko eta
lagun artean noblezan.
Kofradi eta mugarriak be
beti gogoan eukazan,
jaioterriko arazo danak
ederto bete ebazan.

- 8/ Lelengoz bera egin zanean
Madrilgo kortera juan,
zenbat gastatu eban bidean
dana apuntatzen zuan.
Errealia zan, pezeta barik,
izaten zana orduan,
agintariak orain ez dabiz
ordukoaren moduan.
- 9/ Abando zan ba Bilbo ondoan
eleiz aurreko erria,
ta Zamakolak an gura eban
imini portu barria.
Bizkai danantzat ontasuna zan
portu orixe jarria,
ortik sortu zan Zamakolantzat
bilbotarren asarria.
- 10/ Portua bear zala Abandon
Zamakolak deklaratu,
ta Abandoko erriak bere
ortako gogoia artu.
Baña orrela zirala gauzak
Bilbon ziran enteratu,
bilbotar danak Zamakolaren
aurka zirean altzatu.

- 11/ Gauza aundia Bizkaikoentzat
portu barria izatea,
barkuentzako karga-deskargak
toki bitan egitea.
Zamakolada zala a eta
Bilbon asarre jentea,
akordau eben arrapatzeko
Dimaraño etortea.
- 12/ Bilbotar asko armak artuta
etorri ziran Dimerera,
Simon Bernardok igesi egin
ikusiagaz batera.
Etxeko atzekaldetik urten
arei tranpa egitera,
ta segituan joan zan gero
Etxarri-Aranatzera.
- 13/ Barriz Dimerera etorri eta
Frantziarekin gerria,
Simon Bernardo segituan zan
aretxen kontra jarria.
Berak kapitan egiten eban,
oso momentu larria,
Euskal-Erria ondo zaintzeko
ak baeukan egarria.

- 14/ Gero inglesak prestatu ziran
gurekin gerran sartzeko,
Zamakola zan enkargatua
indarrak preparatzeko.
Irureun eta oge ta amabost
gure Bizkaitik artzeko,
agindu eutsen alperrak eta
maleanteak batzeko.
- 15/ Erantzuna zan: «Alperrik ez da
gure errietan oiñ arte,
eta sasoiko gizon guztiok
or artuko dogu parte.
Premiña bada joango gara
guztiok zar eta gazte,
guk geureakaz nai dogu bizi
ta ez inglesakaz naste!».
- 16/ Diman gaur diran eskolak bere
berak zituan sortuak,
ordurik ona gure umetxoak
antxe dira eskolatuak.
Eskola eta eleiza diraz
eleizpeakin batuak,
bertso onegaz amaitzen noa
Zamakolaren kontuak.

GORBAIE MENDIA

- 1/ Gure Gorbaie agurgarria
Arratiako lurrean,
mendi eder bat ikusiten da
geure erritik urrean.
Lenao antxiñe Diman asi ta
oñez oitura zarrean,
abarkak ondo lotzen genduzan
San Justoko bizkarrean,
maleteari zati bat kendu
gero aldatz gogorrean.

- 2/ Pagomakurra artu ondoan
piska bat deskantsatzeko,
bokau bat gero maletatikan
indar berria sortzeko.
Urrena andikan Arrabaraño
zelai andira eltzeko,
an jantza batzuk eiten genduzan
gorputza airatutzeko,
non pasa bada egun ohea
gaztea alaitutzeko?

- 3/ Gazte denporan osasun ona
gutziz izaten genduan,
gantzontzillorik oingo moduan
ez genduan guk orduan.
Neskatxak bere barruko barik
zirean gure moduan,
Arraba zelai maite ederrak
ori ikusiten zuan,
gauzak aldatu asko egin diraz
ordurik ona munduan.
- 4/ Zenbat meritu duan Gorbaiek
anaiak sinistatzeko,
Arraban dauka zelaia len lez
jantzan egin ta olgatzeko.
Mendi-espalda aundiak dituz
ardiak pasteatzeko,
denpora onagaz ikusgarri da
indar barriak artzeko,
eta ganean kurutze ederra
Bizkai guztia zaintzeko.
- 5/ Kurutzetikan nik egun baten
kantatu neban berttua:
«Anai-arrebok, etorri ona
artzeko aize freskua.
Ementxe dogu mendi ganean
kurutze bedeinkatua,
bizkaitar danok auxe daukagu
alkar artzeko lekua,
arabarrak be anaiak diraz,
luzatu geure eskua».

- 6/ Beste bertso bat be bota neban,
pastore bat an berezi:
»Neure anaia maite-maitea,
mendan zara zu bizi.
Zeure lanetan egun askotan
egiten zaitut ikusi:
esneak batu, gaztaiak egin,
axuri barriak azi;
neguan bakez bajatu zaitetz
zeure artalde ta guzi».
- 7/ Sarri askotan lotutzen giñan
kurutzera igon barik,
Arraban jantzan asten giñan da
etzegon joan bearrik.
Jantzaldi onak eiten genduzan,
ez gara etorri alperrik,
lagun asko gu izaten giñan
iñor etzan an bakarrik,
eta lañoa agertzen bazan
ez artu bide okerrik.
- 8/ Beste batzutan antxe geratu
Pagomakur inguruan,
derrigorrikan ez gendun eta
geuk gura gendun arluan.
Zeñek zantzo bat andiagoa
apostu egiten genduan,
gure ibillerak beti zirean
legez Jaunan aginduan,
maltzinkeririk etzan izaten
oraingo askoren moduan.

- 9/ Neska ta mutil izaten giñan
sarritan mordo aundia,
malezi bako gazte denpora
genduan geure aldia.
Maletatikan gertu gengoan
emoteko be erdia,
anai-arrebak legez guztiok,
jarteko bedar berdian,
kanta ta broman pasatzen gendun
sarritan eguardia.
- 10/ Amaitzen noa bertso maiteok
Gorbaie aldera jarriak,
ikusitako gauzak barrizten
fazil du bertsolariak.
Olan zirean geure oitura
ta ibilte zoragarriak,
gazte denporan egindakoak,
gauza zuzen da garbiak,
batzuk Gorbaien kantatukoak,
beste batzuek barriak.

URKIOLARA

Arratiako erri danetatik Urkiolara antxiñetik oitura da San Antoniogana joatea errebatiba egiten. Len erri bakotxa joaten zan bakarrik. Baña orain, edo baserriak gutxitu diralako edo jai andia goa egitearren, batera joaten da Arrati guztia: Bedia, Lemoa, Igorre, Dime, Arantzazu, Artea, Areatza, Zeanuri; eta geuregaz joaten da Ubidea ere. Ospatuten da sapatu baten, San Antoniori eskatzen gure baserrietan gauza onak artu daitezkan, eta bai ere gure ganaduak ondo izan daitezkan. Egun onetan izaten da mezea amaikkak aldera. Erri guztietako abadeak izaten dira, eta bai bertsolariak be, geienean Basilio Pujana eta biok. Jan ostean jai egiten da.

- 1/ Nere kristauak, Urkiolara
Arrati dana batera,
apaltasunez beterik eta
anai-arreben antzera.
San Antonio maite izanik
alan etorri bagera,
ondo etorriak izan gaitez
danok gaurko batzarrera.

- 2/ Arratiarrak Urkiolara
etorri gara ugari,
santu maiteak ondo artzeko
gure anai-arrebari,
biotz-biotzez eskatuteko
San Antonio aundiari,
bendezio bat bialduteko
guztion baserriari.


- 3/ Erentzitikan etorri jaku
errebatiba-eguna,
gazte-gazterik aita ta amagaz
etorten giñan gu ona.
Fede aundi bat ekarten gendun
guraso onak emona,
San Antoniori baita eskatu
bakea ta zoriona.

- 4/ San Antonio, gaurko eguna
izan daitela betea,
gura geunke guk solo guztiak
beterikan egotea,
guk daukaguzan ganaduakaz
suerte ona izatea,
pozez beterik bizi daitezán
erri ta etxe maitea.
- 5/ Ardi ta auntzak bere badodaz
ortik zabalik basoan,
egun batzutan itxiten doguz
aiek be zeure anparoan.
Naiz-ta egunero eukiten dot nik
euren bizitza gogoan,
aiek ikusten zelan dagozan
ni beti ezin naz joan.
- 6/ Beiak etxean ere baditut,
beintxa bat gazte polita,
beragan daukat esperantza bat
gogo onez iminita.
Sarritan nago berari adi
ondo esanik azita,
ze poza nitzat aurten txaltxo bat
ak eginda ikusita.

- 7/ Neure artoak ereinda dodaz
neke askogaz nitzako,
laietan eta ganaduakaz
fin eginda orretako.
Neke askokua izanda bere
ereintza ori egiteko,
San Antonio, lagun eidazu
gauza onak eukiteko.
- 8/ Garia oso ederra daukat
ia dago-ta eldua,
ainbat anega badira aurten,
ori da nire gogua.
Esperantzagaz beterik dot nik
aurtengo bizimodua,
San Antonio, biotz-biotzez
zeuri eskatzera nua.
- 9/ Berotasuna, bai eta poza,
Urkiolan danok batzea,
anai ta arrebak santutegian
gogotik alkar artzea.
Gorroto danak azpiratu ta
bake ona goratzea,
orretarako bearrezko da
danok alkar maitatzea.

10/ Gaurko egunez amaitzen dogu
biotza bete-betean,
Arrati dana zoriontsu ta
bakeaz bizi gaitean.
Alkertasun au zaindu daigun ba
olango borondatean,
agur gozo bat guztiontzako
datorren urterartean.

Nor garan azaldu



Dimako erria.

AITA DOMINGO ITURRATE

Aita Domingo Iturrate, Dimako semea, beato
egin ebenean ataratako bertsoak.

- 1/ Aita Domingo Iturrateri
jartera noa bertsuak,
zenbat gauza on izan ebazan
gure erritar fedetsuak.
Esan nai neukez aren munduko
denpora eta kasuak,
laguntasuna emoten badeust
Domingo zoriontsuak.

2/ Milla bedratzireun da batean
jaio zan zorionean,
maiatza illa eta ganera
amaikako egunean,
Euskal-Errian, Bizkaian eta
Dimako erri onean,
Biteriñoko baserrian ta
pobre ta umiltasunean.

3/ Umetxo ori izango zan ba
Jaun onak aukeratua,
amaika neba-arreba artean
lelengo munduratua,
ziur-ziurrik jaio zanean
bide zuzena artua,
gure erriko Pedro Deunaren
eleizan bateatua.

4/ Mutikotxo au umetarikan
jarri Jaunaren arluan,
serbitzaillea izan nai eban
gaztetarikan munduan.
Eskolarako bitartean be
beti eleizara jua,
andik gerora laster sartu zan
Algortako konbentuan.

- 5/ Konbentu ortan sartu zanean
sinismen bero batean,
barruan eukan Jaunaren deia
biotza bete-betea.
Gauz onak danak beragan zitun
eta txarrak apartean,
lelengotarik guztiz zintzoa
frailegai danen artean.
- 6/ Algortatikan Santanderrera
fraile-eziketa artzeko,
La Bien Aparecida'n lekuan
ikasketak jarraitzeko.
Orduko lanetikan aparte
gaixoak zitun zaintzeko,
au egitea etzan naikoa
Domingo au nekatzeko.
- 7/ Santanderretik Erromarantza
dotoradua egiteko,
goiko maillako estudioak
an gogoz amaituteko.
Bere asmoa arturik eukan
fedea zabalduteko,
gura eban izan munduagaz ta
Jaungoikoaz bitarteko.

- 8/ Buru argia ziñaden beti
ikasteko momentuan,
mixiolari joateko bere
guztizko asmo senduan.
Txiro jendea lagunduteko
gogoia beti zenduan,
Jauna serbitzen egon ezkeron
pozez beti komentuan.
- 9/ Erroman bere meza emon da
gero gaixorik jarria,
bere errian ezin emonik
onela meza barria.
Gogo aundia serbibuteko
baña barrutik larria,
ta Belmontera bialdu eben
Domingo errukarria.
- 10/ Erromatikan gaixorik dator
osatuteko asmoan,
aita-amari mosu emonez
Bilbon ikusitakoan.
Mediku askok ikusi eta
gero Belmontera joan,
azken orduko martirioa
pazientziaz eroan.

11/ Milla bedratzireun da ganera
ogei ta zazpigarrena,
orduak berak ikusi eban
gaizo txarraren eztena.
Apirillaren zazpia izanik
bizitzearen azkena,
mundu onetan lan gitxi egin,
ori izan eban pena.

12/ Milla bedratzireun da larogei
eta irugarrenean,
urriko illak egunak ogei
eta amar zituanean,
Aita Santuak beato legez
deklaratu ebanean,
Dimako eleizan imini gendun
ango altara ganean.

BALENTIN ENBEITA ZANARI

Balentin Enbeita il zanean, 1986 urteko azaroaren 20'an, arentzat bertsook jarri nituan:

- 1/ Balentin, zutzat noa ni orain
bertso batzuek jartzera,
naiz-ta bertsoak nik ezin jarri
zure bertsoen antzera.
Uste barikan mundu ontatik
iges egiñik joan zera,
zure lagunak ez dogu itxiko
zure oroitza galtzera,
Jauna zerutik jatsi daitela
zu bere eskuan artzera.

- 2/ Milla bedratzireun da laroge
ta seigarrena genduan,
azaroaren ogeian zendun
azken arnasa munduan,
emaztea ta seme-alabak
danak zure inguruan.
Ainbeste lagun, bertsolari be,
Euskal-Errian zenduan,
egun askotan pozez beterik
egonak zure onduan.
- 3/ Zu nor ziñan be nire aldetik
zerbait esatera noa,
Euskal-Errian zuk zendulako
egin lanikan naikoa.
Bertsolarien kunen jaio ta
bertan pozez azikoa,
aita prestu bat zu izan ziñan
Euskal-Erri guzikoa,
nik orregaitik deituten neutzun
«Bizkaiko bikarioa».
- 4/ Urretxindorra aita zenduan
maixu berdiñik bakoa,
Euskal-Errian bertsolari bat
ospetsu izandakoa.
Gero zu, seme, etorri ziñan
zure aita bezelakoa,
gure errian euskera zaintzen
egiña dozu naikoa,
gitxi lez emen izan zara zu
euskaldun benetakua.

- 5/ Ezkondu eta bizi ziñana
zeure famili maitean,
gerra zantarra etorri jakun
Euskadira bat-batean.
Andra ta ume etxean eta
zu frentean apartean,
geure erria defenditzeko
anai zuzenen artean,
Puerto de Santa Marian gero,
Andaluziko partean.
- 6/ Zer pena ori izango zan ba
andrea ume txikerrez
al dana eta eziña egiten,
zu barruan zoritxarrez.
Fameli dana apurtu zan da
betik gora ezbearrez,
ze frankotarrak emen gu baiño
geiago ziran indarrez,
zelan etorren bistan egoan,
zu kartzelan derrigorrez.
- 7/ Zoritxar ori pasa ta etorri
ziñan zeureen artera,
zeure fameli ta erriagaz
gogo onez bizitera.
Naiz-ta gero be gogoez kontra
frankismoan egotera,
urteak joan eta etorri
eldu ziñaden ostera,
zeure bertsoak abestuagaz
euskalduna izatera.

- 8/ Sarri askotan etorri ziñan
ni bizi nintzan errira,
jende guztia bajatuten zan
gure plazaren erdira.
Euskal-Errian zuri jasoak
zenbat txalo ete dira?
Sarri egon naz toki askotan
zure ondoan begira,
arek bertsoak kantauko neukez
nire barruan balira,
- 9/ Zeure erria goratuteko
beti ziñan zu onena,
aberriari lagunduteko
beti gogoz ziñadena.
Gazte denporan artu zenduan
munduko bide zuzena,
ta madritarrak agindutea
onek emat' eutzun pena,
euskaldunena zergaitik ez ba
Euskal-Erriak daukena?
- 10/ Zeure denpora dana zenduan
Euskal-Erria indartzeko,
gertu zenduan beti biotza
erri alde agertzeko,
gure euskera agurgarria
zure ama lez zaintzeko.
Erabagi bat artu Muxikan
oroigarri bat jartzeko,
urteak joan eta etorri
Balentin akordatzeko.

- 11/ Zure illeta-meza ortan be
makiña bat bertsolari,
biotza dardar gendula ekin
bertsoak kantatzeari.
Urkiolako gotzaiña bere
eskerrak emon ugari,
erria zorrez egon zana lez
zerbait ordaindu berari,
agur bero bat egitearren
aita bertsolariari.
- 12/ «Azken agurra zuri emoten
eleiza au dogu bete,
munduan sarri gendualako
zurekin artu guk parte.
Euskal-Erriko anai-arreba
guztiak zenduzan maite,
beste munduan be zuzenakin
alkaturik izan zaite,
agur gozo bat, gure Balentin,
zeruan ikusi arte!».

DIMAKO ZEZENAK

1/ Dimako gure erri maitea
Bizkaiko baztar batean,
maitatzen dogu biotz-biotzez
seme-alaben artean.
Aita San Pedro dogu zaindari
gure sorterri maitean,
orain be laister badatoz jaiak
guztiok poztu gaitean.

2/ Diman daukagu plaza polit bat
zezen-plazatzat jarria,
begiratuta emoten dausku
bistale ikusgarria.
Alde batetik udaletxea
zaindu dagian erria,
eta arri bat jarlekurako
lenaokoak ekarria.

3/ Kepa Deunaren jaietan lenao
emen ziraden zezenak,
aurrez asita plaza politzen
gizonak or dabizenak.
Oiek ikusten etorten ziran
onera jende zuzenak,
orain be ori esango dabe
ni lez ikusten dauzenak.

4/ Ikustekoa zan gure plaza
eta jendetza andia,
alde danetik jarlekua da
ta zezenentzat erdia.
Olan egiten gure erriak
bete eban gizaldia,
aurrerantza be lengo antzera
sarri izango al dia.

5/ Martzelino ta Erri be ortxe
enpresario entero,
Petralandarrak bere etorri
indar askorekin gero.
Pijon ta Zipri festa atontzen
agertu zirean bero,
jakiña zan ba zezen ederrak
Zipri etorri ezkeru.

- 6/ Begiratu ta gure plazea
baño ez egon obarik,
beste gauzarik ikusiteko
iñok ez eukan gurarik.
Erri guztiak goratzen eban,
ez da orretan dudarik,
zelan egon ba gure errian
zezenak ikusi barik?
- 7/ Gure Bizkaian ez da erririk
olango plaza daukanik,
ikusiteko jende guztiak
bera onena izanik.
Dimako plazak ez dau emoten
barriarentzako planik,
ez dago iñun Euskal-Errian
aren antzekoa danik.
- 8/ Zenbat biderrez akordatzen naz
begiraturik jaietan,
ikusgarria gure erria
orrelako egunetan.
Ze pozaldia artzen gendun guk
oroitzeko da benetan,
egun andiak zirean orreik
guretzat mundu onetan.

9/ Amabost egun aurreragotik
gizonak asi lanean,
plaza eskinak zerratu eta
aurkiak jarri danean.
Lan orreik danak egiten ziran
gizon baten esanean,
obra on ori amaituten zan
azkeneko egunean.

10/ Illuntzerantza baserritarrak
etorri ikusitera,
alkar artuko jendea bertan
batetik eta bestera.
Adornatzen zan plazatxo ori
jaiai antza emotera,
eta eguna eltzen zanean
antxe guztiok batera.

11/ Egun andia etorri eta
goizik animazioa,
a izaten zan erri jator bat
berotasunez ioa.
Arratsaldean plaza garbitzen
zaldiaren jenioa,
ta jinetea aukeratuta
orretarako jaioa.

- 12/ Giltza andi bat botaten eben
udalako balkoietei,
jinete batek artuaz bertan
zaldi ederran ganeti.
Ate gogorra zabalduagaz
giltzariaren aldeti,
kornetak bere agintza jota
zezenak urten dau beti.
- 13/ Zezenak beti onak zirean,
Salamankatik ekarri,
paparra zabal, adar andiak,
iltzallea barriz larri.
«Orrek ezin lei dominau ori»
gu an esaten alkarri.
«Geuk be bajatu beariko dogu»
esaten genduan sarri.
- 14/ Urtetxo baten egun bi lenao
etorri ziran zezanak,
illuntze orretan an batu giñan
erri aldetik giñanak.
Libre ixteko zezanak plazan
gure guztion esanak,
jai andi bat guk an egitea
eskatu dau erri danak.

15/ Enpresario Zipri genduan,
ak egin eban naikoa,
gustoa emon onartuagaz
errik eskatutakoa.
Ta zezen batek adarra bota,
ori zan uste bakoa,
onen ostean esango dot nik
orduan jazotakoa.

16/ Beste irurak bueltaka plazan
baterantza ta besteti,
eta gu danok zirikatuten
bakotxa bere aldeti.
Munduan askok agindutea
txarra izaten da beti,
gero zezenok iges egin da
joan Obako bideti.

17/ Gaba zan eta iges joatea
axe zan pena galanta,
danok alkarri erru botaten
eta ainbeste zarata.
Gure Zipri be penaz beterik
bera responsable da-ta,
danon aurrean negar eiteko
askorik ez eban falta.

18/ Lagunduteko asko zirean
eguna agertu zanean,
jakiña zan lez eldu zirala
or San Kristobal ganean.
Guardizibillak bat iltzen dabe
arin-arin joanean,
guztiok pozez beste biak be
an atrapau ziranean.

19/ Zenbat disgustu izango eban
Zipri enpresarioak,
naiz-eta asko balio eban
berak eukan jenioak!
Erri danaren gustoa egiten
galdu zitun balioak,
eta ganera pasa zituan
penazko kalbarioak.

20/ Gauza barriz be arreglatuta
jaiak genduzan arturik,
ostera plaza guztiz beteta
geiao ez egon lekurik.
Gure Zipiri lagunduteko
etxakon falta eskurik,
jai andi ori amaitu gendun
danok Zipri txaloturik.

21/ Erri askotan solo batean
zezenak daurez egingo,
emen egoten zan ainbat jende
ez da areitan izingo.
Propaganda be egiñagaitik
ezin konpara emengo,
urre gorrizko zezenakaz be
emen lez ez dau urtengo.

22/ Ekarten dabe plaza toki bat
iñondik bitarte barik,
botxingo baten sartuta danak,
ez da orretan dudarik.
Gaizorik ere jarri laiteke
orduak olan pasarik,
ango bero ta gauza orrekaz
ezin artu arnasarik.

23/ Lengo erea amaitu zan da
aldateko egarrían,
utsuna asko izango dogu
ta ez beti pozgarrían.
Usantza zarrak galduez eta
zer ikusiko barrían?
Lengo oiturak poz andiagaz
artu leitezke errían.

24/ Ogei eta lau bertsoan jarri
Dimako zezen kontua,
erriarentzat gozoa izan
antxiñeko inbentua.
Arratsaldean zezenak plazan,
gabatan bertso kantua,
orain tristeaz izango da ba
patroitzat dogun santua.

**JOSE MIGEL BARANDIARAN
EUSKAL KULTURAREN AITALEN**

- 1/ Jose Migel, zu jaio ziñaden
Ataungo erri maitean,
anai ta arreba zu gazteena
bederatzi en artean.
Ogei ta amaika abenduan zan
danok oroitu gaitean,
milla zortzireun laroge eta
beatzigarren urtean,
Perunazarra deituten jakon
baserri etxe batean.

- 2/ Aita ta ama zuzenetatik
eldu zure jaiotzia,
baserrikua -zetan esan b'ez?-,
zintzotasunez azia.
Gaztetan pozez artuko zendun
zeu sortu ziñan etxia,
Jaunaren deia entzun da artu
zurretzat abadetzia,
onez ganera itxiten dozu
kulturan zuk erentzia.

- 3/ Aitona zara, Jose Migel, zu
gutzat Euskadi maitean,
zugandik zenbat gauza dirade
ikasi gure artean?
Beti egon zara gaba ta egun
zintzorik lanez betean,
beste asko be asiko ziran,
iñor ez zu ainbestean,
euskaldun danok zuri ordaintzeko
noizbait akordau gaitean.
- 4/ Amalau urte zenduzenean
urten zenduan etxeti,
Jaunaren deia artu zenduan
gauza guztien ganeti.
Ta bost erreal ordaindu bear
aita ta amaren aldeti,
zure eskolak guztiz onak be
etziran izaten beti,
amak esana: «Txarto bazabiz
segi aurrera zegaiti?».
- 5/ Amabost urte zenduzanean
ama il da zu penetan,
bularretiko gaizo txarragaz,
sentidu zendun benetan.
Baña artuta zendun arloa
iñola ezin itxi bertan,
baña geiago ezin ikusi
emen lur eder onetan,
naigabe asko izaten dira
etxeko ezbearretan.

- 6/ Gasteiz orretan ikasketara
seminarioan sartu,
zintzotasunez egin zenduan
zeure bide ori artu.
Filosofian sarituagaz
gero aurrera jarraitu,
zeure arloa eroateko
ondo ziñaden prestatu,
uste zenduan baño obeto
estudioak amaitu.
- 7/ Milla bedratzireun da amabost,
zuk emon meza barria,
ordurartean estudiante,
gero abade jarria.
Aita be urte ortan il jatzun,
barriz be gauza larria,
baña abade egiña eta
etziñan errukarria,
mundu onetako jarri zenduan
ondo zeure oñarria.
- 8/ Milla bedratzireun da ogeian
vicerektor izatera,
antxe zirean estudianteai
lezioak emotera.
Naiz-ta estudioak amaitu
bardin lanean ostera,
lan bako egunik zeure aldetik
iñoiz etzendun atera,
beti ziñaden goi-maillakoaz
edo bekoaz batera.

- 9/ Milla bedratzireun da ganera
ogei ta seigarrenean,
Rector ziñaden *Seminario*
Aguirre deritxonean.
Gutziz zorrotza izaten ziñan
irakasleen lanean,
lan ori bere artu zenduan
burutik gogo onean,
ikasle orreik ondo egoteko
urtea amaitzen zanean.
- 10/ Lagun ziñaden Aranzadi ta
Eguren'ekin batera,
alkarrekin be sarri zenduzan
gauza barriak atera.
Koba askotan sartu ondoren
eretxiak emotera,
urte batean zerbait billatu,
urrengoan be osterera,
koba batean egun batzuk ein
gero andikan bestera.
- 11/ Etorri ziñan egun batean
ni jaio nintzan etxera,
Baltzola deitxen kobak ikusi
ta al zana billatzera.
Gure gerraren aurreti zan au,
banoa akordatzera,
nire aita ta ama orduan,
zeu be gogorauko zera,
egunez koban lan egin eta
gugaz gaba pasatzera.

- 12/ Egunez kobatara joan zu
nire anaiegaz batera,
eberdirako etorten ziñan
gurera bazkaldutera.
Arratsaldean zer billatu zan
ari antz bat emotera,
gauzak imini euren izenez
balioso izatera,
nok jakingo dau ezerezetik
zer egin dozun atera?
- 13/ Oge ta amaseigarren urtean
gugana illuntasuna,
Itziarreko kobak ikusten
barri txarra eldu jatzena.
Zeure loba bat eroan zendun
da Aranzadi laguna,
nola gordeko ete zenduan
zuk an billatu zenduna,
zelan laster zan ezbearrezko
gure gerrako eguna?
- 14/ Ezbearrezko gerra eldu ta
zu egoera txarrian,
notezi txarrak zirean eta
zerbait egin bearrian.
Angel de Guarda baportxo baten
igesi era larrian,
emen egoten bildur ziñan da
joanik derrigorrian,
zeure bizitza asi zenduan
pena askogaz osterrian.

- 15/ Osterrira zu joan ziñean
nai etzendulako gerrik,
ango ogia oso latza zan
gogoratuaz bakarrik.
»Ai, ni nun nago?» pentsatzen zendun
baña dana zan alperrik,
gauza guztiak txarrak zirean,
eze be ez egon ederrik,
iñori opa ezin leikio
olango suerte okerrik.
- 16/ Pentsamentuan eukiten zendun
zeure baserritxo zarra,
baña orduan ezin segidu
zure biotzan diarra.
Leku danetan estorbuan lez,
zuretzat zer zoritxarra!
Nora joanik euki ez eta
nonbaite egon bearra,
olango gauzak jazoten dira
nausi danean indarra.
- 17/ Amazazpi bat urte luzeak
zuretzat destierruan,
eskerrak zure loba Pilarri,
beti bera zuk onduan.
Leku danetan sobra ziñala
gogoz pentsatzen zenduan,
bizimodua zelangoa zan
ikasi zendun kanpuan,
urteak joan eta etorri
Euskal-Erria goguan.

- 18/ Oin zure loba Pilarrentzat be
bertso bat dot pentsatua,
zure osterriko tristetasuna
ak eban kontsolatua.
Lobak laguntza zuri egiña
ezin lei itxi aztua,
Jaunak merituz euki deiala
ondo kontuan artua.
neke-eraso danetan zendun
beti zeurekin batua.
- 19/ Alemanitik ibili ziñan
baña an be gerra bazan,
ura itxi ta bizi izateko
Sara erri ederra zan.
Atauna ezin ziñan etorri,
nunbait egon bearra zan,
gogoez kontra zelan zengozan
ori be zoritxarra zan,
gerrako gauza txarrak itxi ta
bakean bizi gaitezan.
- 20/ Eldu zan bada zorioneko
etxeratzeko eguna,
bidean onuntz jarri ziñean
zeu ta lobatxo laguna.
Arrera on bat egin eutsuen
t'artu zendun osasuna,
libertadea barriz zuretzat
antxiña galdu zenduna,
pozez beterik ikusi zendun
etxeko alkartasuna.

- 21/ Ostera bere eldu ziñean
Dimako gure etxera,
azlor ortako koba onetan
zer egon arakatzera.
Lanean oin be jarri ziñean
lengo aldiko antzera,
oingo aldian ango lurpetik
gauza asko ateratzera,
ezjakiñari munduan zer dan
bazoaz agertutzera.
- 22/ Orain millaka urte askoko
azurrak lurpetik artu,
gizonenak be agiñak asko
antxe zirean agertu,
Erremintak be antxiñekoak
ugari zenduzan lortu,
animaliak zenbat zirean
ez dakit badozun neurtu,
ezerezeko tokia zan da
urri gorri zuk biurtu.
- 23/ Zenbat olako egingo zendun
emen kultura sartzeko,
gure sustraiak nundik datozen
Euskal-Errin zabaltzeko,
urangoentzat erakutsia
mundu ontan lagatzeko?
Orain gazte bat Euskal-Errian
balego zure antzeko,
falta diraden gure sustraiak
nola diraden artzeko.

24/ Esaten da ba asiko lanak
amaiera daukela,
ba zure gauzak idatziagaz
ez naz penatu bestela.
Zuk egindako lanak esan lai
urre gorritz doazela,
danok dakigu zuk eindakoak
ordaindu ezin laizela,
erriak zorrez itxi dauana
Jaunak ordaindu dautzula.

ESTUALDIA

Lagun batzuekaz nengoan txoko batean, da urrengo goizean klinikara joan bear neban, prostataren operazioa egiteko. Bertsook kantatu nebazan.

1/ Nagoan legez gaizo bategaz
nago aspaldi guztian,
operatzera joan bear dot
etxetik ezin bestian,
Bilbo ganean Artxanda mendin
dagon klinika batian.
Medikuaren eskuetan naiz
biotza bete-betian,
operatu ta lengo antzera
ondo lotzeko ustian.

- 2/ Nire gaizoa prostata da ba
gizon askoren antzera,
ola egoteko ez nago ondo,
banoa operatzera,
ondo izanik amabost egun
klinika ortan pasatzera.
Egun tristeak igaro eta
etorriko naiz atzera,
orrela bada laster batean
esperantza bat artzera.
- 3/ Eldu da orain operatzeko
iminitako ordue,
egun orretan etorriko da
niretzat trantze estue.
Ez dot izango momentu ortan
nori luzatu eskue.
Zelan emongo ete dot ba nik
gero lenengo pausue?
Esker bero bat nire aldetik
bisitatzen banozue.
- 4/ Operatzeak askorentzako
gauza gogorak diran lez,
sari askotan mundu onetan
derrigor egiten direz.
Operatu ta beti gaizoak
ziur joango balirez,
baña sarritan, esan bezela,
ez dabe egiten iges,
orain Jainkoak gura dabena
izan bearko dau nigez.

- 5/ Ze tristetzea izango da ba
kutzilloaz gorputzean,
okel zatiak barrutik kentzen
karnizeroen antzean.
Gitxigi edo larregi kendu
jazo laikena lantzean,
ezer dogunik ez dogu uste
erori arte gaitzean,
zenbat obeto ondo jan da edan
ta trunkil egon etxean.
- 6/ Agur au orain egiten dot nik
dana bertsoan esana,
bertsolariak beti dauka ba
bertsotarako afana.
Badakizue denpora baten
apartatzera noana,
gizonezkoei eskua emoten
orain nator zuekgana
emakumeok barriz ganera
artu mosu gozo bana.

ZERGAITIK EZ?

Zergaitik ez dogu guk Euskal-Errian euskeraz egiten, geure lurra izanda?

1/ Euskal Erria eta
erdal izketea?
Euskeratu lelengo
geure izatea.
Anai-arrebentzako
zorian betea
danok egin ezker
eusker maitea.
Ori da lotea,
saiatu gaitea;
ai ze suertea
amets egitea
Bilbo euskeratuta
guk ikustea!

2/ Euskadi guretzako
izango al dogu?
Nondik etorria dan
danok ein kargu.
Aita-aman semeak
izango gara gu,
ez badogu egiten
geure erria saldu.
Bear dogu zaindu,
nork nai dau makaldu?
Euskera zabaldu,
nor garan azaldu,
erentziz etorria
ezin ba galdu.

3/ Egingo bagiña gu
anai onak batu,
Bilbo egin liteke
oin euskeratu.
Lan gogorak dituguz
bearko amaitu,
naiz-ta penaz ibilli
al bada jarraitu.
Ez gaitez nekatu,
guztiok alkartu;
bear da indartu
ta kalean sartu,
euskera zabaltzeko
bideak artu.

4/ Madriletik arturik
guretzat ordena,
onek ekarriten dau
niretzat pena.
Zertarako dauka ba
Euskadi izena,
ez bagara ugazaba
gure etxearena?
Emen dagoena
anai ta arrebena,
gero datorrena
seme ta alabena:
euskera, ama ta aitak
itxi euskuena.

5/ Euskerak nai dau bizi
era ederrean,
ez gaitez an ba joan
bide okerrean.
Iñoiz banaiz galdera
egin bearrean,
orretarako be gu
ain toki txarrean.
Modu zatarrean
bialdu aurrean;
gu derrigorrean
betiko zorrean:
kanpotarren azpian
geure lurrean.

6/ Bilbo errira joan
euskaldun betea,
ezin billatu antxe
euskal tartea.
Nori galde egin da
non joko atea?
Auxe da miserablez
bizi izatea!
Euskaldun tristea
bertako gaztea;
olan egotea,
anaia maitea,
zertako erdalduna
gure alkatea?

7/ Udaletxean danak
erderea maite,
euskaldunen legerik
ez dabe bete.
Ango guardi bateri
euskeraz joan zaite,
aren erantzuna da
»¿*Qué es lo que dice usted?*»
Naiz askok ez uste,
or zar eta gazte
danak dagoz naste,
kanporatu arte
agoazil, kontzejal,
guardi ta alkate.

EZKONDUEN BILLERA

Urkiolako eleizan ezkondu giñan andra-gizonak, urtean egun baten egiten dogu jaialdi bat bertan, udara aldeko domeka baten. Amabietan eleizkizuna, aurreskua ta bertsolariak. Arratsaldean, eleiza osteko soloan omenduak izaten dira, lelengo, urrezko ezteguak eginikoak; eta, gero, zidarrezko ezteguak dabezanak. Geroago, jolasak: trikitixa, txistulari, jantzak, aurreskuak, bertsolariak ta beste olgeta batzuk bere bai.

- 1/ Neure lelengo zoriona ba
Aita San Antoniori,
eta bigarren urrezko eztegu
egiten daben danori.
Ta zidarrezko eztegua be
gogoz artu daigun ori,
esker bero bat agurgarrizko
geure andra-gizonori.

2/ Guk egun baten eliza ontan
eskua emon alkarri,
San Antonio zala bitartez
bustarri ona ezarri.
Geure ezkontza emen ein gendun,
orain barriztera jarri,
geure biotzak esker beroaz
guztiok doguz ekarri.

3/ Barriztutera etorri gara
geure ezkontza benetan,
bide orretan sartu giñean
geure emengo esanetan.
Batu gaitezana, andra ta gizon,
neke ta arazo danetan,
bizimodua eroateko
emen lur eder onetan.

4/ Goratu danok emen urrezko
gaurko eztegu eguna,
eurentzako au izango da ta
gogoz amets andi duna.
Jaunak emonik euki daiela
biotzeko poztasuna,
urte askoko bizitza eta
bakeagaz osasuna.

5/ Ze gozoa dan gaurko eguna,
aitona eta amona,
au da suertea zeuen denporan
Jaun Zerukoak emona.
Aukeratuta izan dozue
mundu ontan zoriona,
pozez beteko busterrri ontan
zaren andra ta gizona.

6/ Egun batean batu ziñeen,
testigu San Antonio,
zeuen baietzak alkarrengana
ziurrik zuan balio.
Mundu onetan bat izateko
ezkontza dala medio,
zeuen denporan ezetz alkarri
esan gaberik oindio.

7/ Orain zidarrezko ezteguak
goratu danon artean,
Jaunak grazia emon daitzula
biotza bete-bete.
Ezkondutako poztasunagaz
bizitz ontan izatean,
bendizioa egon daitela
zuen etxeko atean.

- 8/ Alkartasuna zuekaz eta
biotza bete-betea,
San Antoniok emen emonik
alkar maite izatea.
Aurrera ere euki zazue
zoriona ta bakea,
Jaunak argiaz bete daiela
zuen etxetxo maitea.
- 9/ Zuen arteko kezka txikerrak
iñoz gogotik ez artu,
bata besteak egindakoa
biotzetikan goratu.
Falta txiki bat egiten badau
maitasunagaz parkatu,
da falta ori egin dauenak
bere burua bajatu.
- 10/ Andra gizonak danok gaitezana
orain baietzara jarri,
San Antonio bitartez dala
emon eskuak alkarri.
Berotasun bat alkarrengana
emen guztiok ezarri,
urrengoan guk Urkiolara
poz geiao daigun ekarri.

11/ Alkartasuna bearra dogu
andra eta gizon danak,
erantzun au ba emon bear dau
maitasun asko daukanak.
Erakutsi au erentziz itxi
geure ama izan zanak,
zerua ziur izango dabe
olan maitatzen diranak.

12/ Agur bategaz amaitzen noa
ni poztasunez betean,
Jaunan graziaz bizi gaitezan
osasun eder batean.
Beti baietza izan daitela
semar-emazten artean,
San Antonio bitartez dala
datorren urterartean.

SAN ANTONIO EGUNEAN

Gazte denporan, San Antonio egunean, Urkiolara joaten giñan aita ta seme-alabak. Dimatik oñez iru ordu genduzan bidean. Maleta eroaten gendun danontzat.

- 1/ San Antonio da ta
Urkiolarako,
garriko miñik ez dot
iñoz nik arako.

- 2/ Goizean goizetik naz
ni pozez beterik,
San Antonio da ta
ez dot logurerik.

- 3/ Diman bizi naiz eta
oñez joateko,
iru bat ordu doguz
bidean eiteko.

- 4/ Aztoati gora gu
joanak batera,
amarretan eldurik
Urkiola aldera.
- 5/ Anai-arrebak aitaz
maletagaz juan,
lelengo armozatu
allegau orduan.
- 6/ Gero aita lotzen da
maletan karguan,
gazteok nobi bana
billatu daiguan.
- 7/ San Antoniogana
joan eleizara,
nobia eskatzeko
azaldutzen gara.
- 8/ Batzen giñan atzera
eberdi aldean,
maleta zabaldu ta
jarri pagopean.
- 9/ Bazkari ona eta
sasoia betean,
bertsotan egin aita
semeen artean.

- 10/ Aitak esaten euskun
ze barri doguan?
–Ez dogu nobiarik
geure inguruan.
- 11/ –San Antoniori nik
nobia eskatu,
formala naizela ta
arek bi opatu.
- 12/ Aita, zer egingo dot
nobi bi artuta?
Ze, bi emon badaustaz
nik bat eskatuta.
- 13/ – Seme, ez adi egin
ainbeste arrotu:
bi badozak, laster aiz
bape barik lotu.
- 14/ – Orain daukat garaia
bitik bat arteko,
onena artu eta
txarrena ixteko.
- 15/ – Andrak zelan dakik ik
zein obeak dian?
Andra ezagutzen dok
latzuen azpian.

ZARRAREN ESPERANTZA

Gizon batek, irurogei ta amar urtera eltzan danean, zer esperantza daukan.

1/ Iruroge ta amar
urte leponduan,
esperantza gitxigaz
bizi naiz munduan.
Azur gogorrak eta
ezin konponduan,
sarritan aitzuten jat
len zer esan duan.

- 2/ Goizean altzau eta
nik ez daukat lanik,
kantsauta nagoala
gorputzak esanik.
Bide gitxian baña
okerka joanik,
pentsamentu guztiak
okerrak izanik.
- 3/ Jubilatu nintzan da
zer dot nik ondoan?
Ezer ezin billatu
oin nire arloan.
Zer poz egongo da ba
zarraren gogoan?
Pazientzia badau
al bada eroan.
- 4/ Azurrak gogor eta
pausoa laburtu,
norbera enterau barik
zar-itxura artu.
Saltorik ezin egin,
gorputz dana zortu,
len abilla zan eta
inutil biurtu.

- 5/ Arteztuten bagara
ezin okertuan,
okertuten bagara
ezin arteztuan.
Bizitza eroaten
ain trantze estuan,
zer itxi badaukagu
guk testamentuan.
- 6/ Indarrak esan laike
iges ein dabela,
ez neban usteko nik
au jazo laikela.
Lengo urterik ona
bajeza itzela,
alto egin bearko,
txarto naz bestela.
- 7/ Azurrak gogortu ta
mamiñak bigundu,
lengo pauso luzea
egin dot nik galdu.
Iñori ez deatsat nik
indarrikan saldu,
orduan lengoak be
or egon bear du.

- 8/ Zartzaroa aurrera,
bagoaz berantza,
argitasunik barik
etorkizun baltza.
Bide ugari baña
danak txarrak antza,
orrela izango da
orain gure jantza.
- 9/ Gabean oira joan
logurarik gabe,
ona ez da izango
zarrentzako a be.
Guretzako badogu
ainbat atsekabe,
gauza txar asko eta
on gitxiren jabe.
- 10/ Kokotea igartu,
uleak martxatzen,
gero ta kalboago
gu gara geratzen.
Umore onik bere
oin ez dogu artzen,
gauza txarrak erosi,
onak doguz saltzen.

- 11/ Ze gauza andia dan
abilidatea,
asko ibili eta
kantsatu gabea,
eta segiduteko
aurrera bidea!
Onetarako ez da
gure edatea.
- 12/ Kanpozalea nintzan
ni len izugarri,
badakit kanpo eta
basoaren barri.
Lagunakaz bere bai
brometan ni sarri,
baña illuntzean goiz
etxerantza jarri.
- 13/ Ze esperantza dogun
geure zartzaruan,
urtez aberastuta
garanok arluan?
Aurrerago joan gura
eta ezin jua,
ta nok esango dausku
zer egin munduan?

14/ Geroko esperantza
oso dogu txarra,
il bere ez gura ta
il egin bearra.
Oindik bizitza maite
izan arren zarra,
emen daukagulako
bizitza bakarra.

15/ Grazia gura dogu
Jaunari eskatu,
Ak egiten bagaitu
ontasunez artu.
Guk egindako faltak
al bada parkatu,
orrela bide onez
iminiko gaitu.

16/ Zar guztientzat diraz
bertsoak jarriak,
aituten emoteko
gure egun larriak.
Beti ez izateko
gu errukarriak,
artu gaitzala ondo
Jaun agurgarriak.

JON AZKUETA TXAPELDUNARI

Galdakaoko mutil batek urten eban Atenasen munduko txapeldun bi milla metro korritzen ostakuloakaz, *Junior* kategorian, emeretzi urtegaz. Arentzat dira bertsook.

1/ Zorionak lelengo
Jon Azkuetari,
gero Galdakaoko
erri jatorrari;
baita bere eskerrak
aita ta amari,
indarra emon dautse
euren semeari.

2/ Izar bat jaiio zan ba
egunen batean,
bere argia emon dau
emen da apartean.
Atenasen gertau zan,
Greziko partean,
mundu guztiko onen
guztien artean.

3/ Milla bedratzireun da
larogei ta seian,
etxetik urten zendun
uztaillaren bian.
Lelengo Madrillera
autobus onian,
gero Atenasera
egazkin batian.

4/ Lagunakaz ein zendun
arantza bidea,
atletak ziran eta
bakoitzak berea.
Jonek eukan buruan
bere ardurea,
laguntzalle izanik
entrenadorea.

5/ Uztaillaren seian zan
Atenasen batu,
lelengo bear eben
guztiak probatu.
Nortzuk lotuten ziran
geroko aukeratu,
berrogetamar lagun
zirean geratu.

6/ Uztaillak amazortzi
semifinaletan,
berrogetamar mutil
ziran bi txandetan.
Nasturik ziñan zuri,
gorri ta baltzetan,
ta zu klasifikatu
ango onenetan.

7/ Amabost mutil jator
klasifikatuak,
uztaillaren ogeian
alkar probatuak.
Inglesak, alemanak
ta Keniakuak
izan ziran gogorren
onen aurkakuak.

- 8/ Urten eban orduan
finalerakoan,
aleman eta ingles
zituan ondoan.
Keniako baltza be
gogorrik arloan,
ta Jon lelengo lotu
bere jenioan.
- 9/ Ze indarrak ebazan
gure mutikoak,
atzean itxiteko
mundu guztikoak:
baltzak eta zuriak
da gañetikoak,
esperantza askogaz
ara etorrikoak!
- 10/ Egun ori euki lai
betiko buruan,
urrezko medallea
jantzirik orduan.
Zer poztasuna gero
biotza barruan:
seme guztietatik
onena munduan!

- 11/ Ankak abillak zitun
ipiñi bearko,
pausotxo bat be ezin
emanikan txarto.
Zer preparamentua
bear orretako,
bestela txapelduna
etzan aterako.
- 12/ Orretako bear zan
gogortutakoa,
Eleizalde zelaian
probatutakoa,
ariñika ibilten
kantsatu bakoa,
ez dago beste bat gaur
bera dan lakoa.
- 13/ *Junior* zure marka
orain izana da,
ortxe saiatu orain
gaztea zara ba.
Urrena nausiakaz
jo zazu aldaba,
mundiala ekarri
orain lez, al bada.

14/ Erria alai dago
zu agertutean,
maite zaitugu, gazte,
zu pozez betean.
Zu lako bat gura dot
beti gure artean,
zaindu zeure indarrak
zeu zeran artean.

15/ Zer esker emon bada
entrenadoreari?
Bere aginduz segidu
zuk bide onari.
Medalla olan ekarri
zure erriari,
orain goratu danok
Ion Azkuetari.

16/ Begiratu ezker
antxe Jonen garra,
estutasuna eta
jendean diarra,
aurreztu ezin eta
aurreztu bearra,
an erakutsi zendun
zuk zure indarra.

- 17/ Irabazi zenduan
bear zenduana,
pozagaz itxiteko
zeure sendi dana:
anaia ta arreba,
aita eta ama,
baita bere alaitu
etxeko amama.
- 18/ Zeure arloa eroan
indarran bitartez,
erri guztia pozez,
zuzen eta artez.
Oin arteko moduan
alegindu zaitetz,
eskerrak biotzetik
erriaren partez.
- 19/ Juantxoren bertsook ni
amaitzen noala,
aurrerantza suerte
on euki daiala.
Mutil ori zaintzeko
oin arte bezala,
ama eta amama
izan daitezala.

EZKONTZA BATEAN

Ezkontza bat izan dogu Urkiolako elizan, eta neu izan nintzan bertsolari. Elizan lelengo eta gero jan ostean, onexek kantatu nebazan:

- 1/ Neure lelengo zoriona emen
geure ezkongai onari,
gero bigarren euren guraso
edo aita ta amari,
ta irugarren anai-arreba
ta famili guztiari,
ondo etorri zaitezen ona
opa deutsiet danari.

2/ Neska-mutillak len ziñeenak
orain alkaturik bertan,
beste guztiok testigu legez
gara gu eliza onetan,
baietza zelan emon dozuen
artez, zuzen da benetan,
alkar maitatuz bizi izateko
beti munduko lanetan.

3/ Egin bearrak asko diran lez
emen ezkontza santuan,
gure Jaun onak imiñikuak
legeko mandamentuan.
Kurutze ori astuna da ta
eroan bear kontuan,
zuzen ta zintzo egonaz artu
dozuen sakramentuan.

4/ Esan geinke ba boda onetan
paradisuan gaozela,
ezkon barriak geure ondoan
pozez beterik daozeela.
Danok dakigu Jaungoikoari
suerte eske zagozela,
nik opa deutset urte askotan
ondo bizi daitezela.

- 5/ Zuen bizitza artu zazue
artez, zuzen da benetan,
alkarri lagunduagaz beti
eguneroko lanetan.
Biok maitatu alegin danaz
neke-arazo danetan,
bizimodua eroateko
emen lur eder onetan.
- 6/ Ezkon barriak artzen dozue
bizitza guztiz betea,
bearrezkoa zuen artean
alkar maite izatea.
Urteak joan eta etorri
izan poza ta bakea,
bendizioaz egon daitean
zuen etxeko atea.
- 8/ Kriada legez etzazu artu
zeure emaztea lurrean,
kontu zorrotza bear dala emon
egon zaitez ziurrean.
Umildadeaz tratatzen bozu
geure mundu laburrean,
berba gozo bat entzungo dozu
gero Jaunaren aurrean.

9/ Zu, emaztea, zintzo izan ba
zeure senarran onduan,
bear dan legez izan zaitetz ba
lagunduteko munduan.
Beti etxeko bake ederra
izan zazula goguan,
Jaungoiko onak esanda legez
bizimodua eruan.

BOTAZIOAK

Euskadiko Parlamenturako botazioak zetozen, azaroaren 30'ean, 1986'an. Onetarako naiko propaganda egin zan, norberaren partidua onena zala esanez. Baña txarto bizi diranen alde ez dabe ezer egiten. Eurak ondo janda bizi, eta beste asko lan gabe eta goseagaz.

- 1/ Euskal Errian dogu
milla bat sesio,
partiduak jarrita
bada naiko lio.
Zertarako dau emen
gizonak balio?
Danok goi egoteko
ainbeste jenio

- 2/ Oingo esateakaz
ezin leike fio,
batzuk bajatu dira,
beste batzuk io.
Tripea ondo bete,
ondradu oindio,
alkate, kontzejal da
parlamentario.
- 3/ Makiña bat badabil
emen ondo janda,
boto eske errian
egin propaganda.
Egindako alabantza
larregi izan da,
gu engañatu gura
guzur bi esanda.
- 4/ Txiki Benegas bere
or dabil kalean,
euskaldunak beragaz
eroan zalean.
Propaganda egiten dau
etxura apalean,
konbentzitu gurean
gu egiñalean.

5/ Bandres bere badabil
zerbaiten ustian:
onena bera dala
Euskadi guztian.
Sartu nai ditu onek
besteak azpian,
jendea engañatzeko
bear ainbestian.

6/ Garaikoetxea be
beretzat lanean,
batera ta bestera
Euskadi danean.
Parrapa ta parrapa
gutzizko afanean,
danok joan gaitean
bere esanean.

7/ Arzallusek be badau
intentziño fiña,
sermoia ta sermoia,
santu bat egiña.
Berba ondo egiten
milla alegiña,
nunai predikatzeko
badauka ak griña.

- 8/ Fraga jauna badabil
emendik da andik,
zerbait be lortu gura
leuke guregandik,
Madrilgo errazoiak
Euskadin esanik;
bere errian onek
ez ete dau lanik?
- 9/ Viana be or dogu
parra-parra beti,
erriak segitzeko
beran esaneti.
Emen ezin jarririk
guztien ganeti,
indar barria ekarri
gero Madrilleti.
- 10/ Idigoras be zintzo
botoak batzean,
errazoiak esaten
or bere lantzean.
Sermoia egiten dau
etxura latzean,
onek be berba asko
besteen antzean.

11/ Makiñatxo bat berba
badabil oin iges,
zer sinistu badogu
baña sinistu ez.
Askok esandakoak
aizeentzat direz,
berba gitxi obeto
zuzenak balirez.

12/ Bata errazoiz dabil
besteen onduan,
nok jakingo dau olan
ze egingo duan?
Ainbeste bide onak
nasturik buruan,
danak dirala txarrak
pentsatu orduan.

13/ Auzoak be emen gu
ia asarrean,
alkar artu ezin da
bizitza txarrean.
Zuriak eta baltzak
dabiz indarrean,
errazoia nork dauko
Euskadi zarrean?

14/ Ibili bear gara
estu eta larri,
bakoitzak ondo neurtu
botoa non jarri.
Zaindu daigun ba gure
erri maitagarri,
gogoz eskuak emon
guztiok alkarri.

MARITXURI

Orain, mutil batek jaietan neska beteri kantatzeko kantak. Naiz-eta nik emen Maritxu imini, izena aldatu leike eta beste neska batena esan, alan edozein neskari kantatu al izateko.

1/ Maritxu, zu zerade
eder ta gozua,
gorputz ori balitza
neretzat osua!
Goia galanta dozu,
barrena lisua,
emongo neukizu ba
oraintxe mosua.

- 2/ Maritxu zerala zu
ezin dot sinestu,
begia bota neutzun,
orain ezin aiztu.
Alegin egiten dot
larri eta estu,
zurekin egoteko
beti nago prestu.
- 3/ Zeure begitxo biak
argi ta indarrez,
arpegi eder ori
beti dago barrez.
Zure amatxo bere
bete lai eskerrez,
egin zaitualako
garbi ta ederrez.
- 4/ Maritxu, zuk baduzu
politik naikoa,
esan laike zarala
faltarik bakoa.
Bestegandik aparte
Jaunak eindakoa,
emaztetzat artu lei
zu bezelakoa.

5/ Mesedez eskatzen dot:
egidazu kasu,
belauniko aurrean
jarririk naukazu.
Zuk ni senartzat artu
egiten banazu,
erregiña bezala
biziko zera zu.

6/ Mutil ederra naiz ta
ez egin atzera,
bikote ona gara,
ez utzi galtzera.
Lanik ez dozu egingo,
señoran antzera,
suertea zuk nigaz
ezkontzen bazara.

7/ Zu nere biotzean
egin ziñan sartu,
zure politasunak
ezin laikez neurtu.
Zeugana dot gogoa
eta ezin lortu,
ai nere zoriona
nai banozu artu!

- 8/ Zure amatxo bere
gura dot abestu,
zu eindakoa da ta
a be ezin aitzu,
Zuregandik iñora
ezin ni igestu,
zuk baietz esan arte
egongo naz estu.
- 9/ Maritxu, zure ulea
munduan onena,
ta arpegi ederra
aingeru batena.
Ortik berantza barriz
gutziz politena,
zu ezin lortuteak
emoten daust pena.
- 10/ Zelako lisu dozu
zuk zeure garria!
Esan lai molde baten
dozula jarria.
Zure arpegia be
da ikusgarria,
dana begiratuta
ain maitagarria.

- 11/ Goitik asi ezkeru,
zuk begi zintzuak,
izar biren antzera
guztiz argitsuak.
Arpegi politagaz
alango mosuak,
bardin papar da garri
ta oin airosuak.
- 12/ Urrindik beiratu ta
beterik ederrez,
zu aukeratutea
niretzat da errez.
Zetan begiratu be
alan ez da urrez,
zu lakorik ikusi
ez dot nere aurrez.
- 13/ Jaunak emonik dozu
zuk edertasuna,
onez ganera guztiz
ona osasuna.
Nor izango ete da
zuretzat laguna?
Neu lako mutil bat da
zuk bear dozuna.

14/ Agur emoten deutzut
larri ta kezkatu,
iñoiz pentsatzen bozu
gertu izango nozu.
Nire biotzak zuri
diar eiten deutzu,
nik maite zaitut eta
zuk artu nazazu.

DIMAKO TORREA

Diman eleizako torreak jausi bear ebala-ta, konpontzeko eskabide bat egin deutsegu kanpoan bizi diran erritar danari. Onetarako, bertso batzuk atera nebazan.

- 1/ Dimostar ona ta adiskidea,
zeuretzat ni bertsolari,
agur bero bat nire aldetik
zeu ta famili danari.
Eskabide bat nai dogu egin
anai eta arrebari,
eskerrik asko lelengo emon
biotzez lagun onari.

- 2/ Gure eleizako torrea dago
jausiteko arriskuan,
torre on ori agertuten da
konpondu bearrezkuan.
Lengo arriak gogortuteko
gagoz derrigorrezkuan,
laguntasunik al bozu egin
ixten dot zure eskuan.
- 3/ Aita ta amagandikan eldu
jaku eleiza betea,
geure zorra da artu gendun lez
urrengoari ixtea.
Tamala geunke torre ederra
geure denporan jaustea,
ori dala ta deituten dautzut,
neure anaia maitea.
- 4/ Zenbat lagundu pentsa zazu ba
ain une larri-samiñan,
zeu be geu legez eleiza onetan
bateatua izan ziñan.
Anai-arrebak, erririk erri
gero zabalduak giñan,
oin be alkarraz sarritan batu
geure borondate fiñan.

5/ Zeure etxean orain bazagoz
diruaz modu txarrean,
gu beti anai izango gara
jarri gabe asarrean.
Orregaitiño trankil etorri
betiko era zarrean,
beso zabalik artuko zara
erritar danen aurrean.

6/ Agur bategaz itxiten noa,
agur nik pozez betean,
pozez beterik bizi zaitez zu
gau ta egun etxe maitean.
Naiz-ta dirua bitartez egon
gu lagun izan gaitean,
eskua emon nai dautzut zuri
alkar ikusi artean.

DANOK ONDO BIZITEKO

Munduan zelan bizi dan jendea, batzuk dirua botaten, beste batzuk goseagaz ilten, beste batzuk armamentuan gastatzen gizonak ilteko eta miseri geiago ekarteko erri batzueri.

- 1/ Mundua zelan dagon jarrita
gura neunke nik azaldu,
alde bitara or daukagula
papel onetan zabaldu.
Batzuk aberats mizkeriakaz
euren gorputz dana galdu,
ta txiro asko pobretasunez
ezbearrera bialdu,
zein dan justua mundu onetan
Jaunak ikusiko al du.

- 2/ Aberatsak zer egiten dabe
pobren gosea kentzeko?
Sarritan indar ugariago
geiago pobretutzeko.
Biotz gogorra bear da euki
arri gogorren antzeko,
pobreak badau naiko miseri
beren biotza mintzeko,
poz aundirikan ez dabe askok
mundu ontan bizitzeko.
- 3/ Zenbat senditan dagoz etxean
seme-alabak lan gabe
pobretasuna ugaritutzen,
oneik zer egingo dabe?
Len miserian egon badiraz
orain laster diraz grabe,
etxe ortara etorriko da
nok daki zenbat naigabe,
lan apurtxo bat orreri emon
ori ez ete da obe?
- 4/ Beste asko be ikusten doguz
goseak ilten munduan,
gure biotza ez da bigundu
ori ikusi onduan.
Ez ete daki errian iñok
zer egin bear doguan?
Umeak ilten gosearekin
ama tristen onduan,
kontzientzia trankil ete da
poderosoen buruan?

- 5/ Gogoan izan, nere kristauak,
ezbearrez diran danak,
sarri areintzat serbidu laike
askok botatzen duanak.
Gogoratu ba gosez ilten
mundu ontan dagozanak,
etxerik barik pobretasunez
bartzeturikan diranak,
da zelan negar egiten dauen
ume gosearen amak.
- 6/ Alkartasuna zer dan munduan
danok gaitez enteratu,
gure eskuak luzatuagaz
egin gaitekez alkartu.
Auzoan diran pobre txiroak
geure anaietzat artu,
danok giñean anai-arrebak
izateko munduratu,
olan egiten badogu gero
Jaunak sarituko gaitu.
- 7/ Pobretasuna Jesusek eban
mundu onetan agertu,
txiro danari lagunduteko
bera be pobre zan sortu.
Ezbearragaz egozan danak
laguntzat zituan artu,
azpiratuta diran guztiak
beti goratzeko gertu,
ori eginda guk ez dautsagu
bear ainbeste eskertu.

- 8/ Guzurrak zenbat balio daben
jendea engañatzeko,
sarritan ori gertatuten da
txikerra azpian sartzeko.
Aundia danak laguntasuna
guzurra defenditzeko,
bada ordua guztiontzat be
gauzak diran lez artzeko,
baña oraindik asko falta da
mundua arreglatzeko.
- 9/ Ezin lai jakin mundu onetan
zein dan arrazoi zuzena,
txarto egiñak errazoiagaz
beti emoten dau pena.
Badakigu ba alkar aitzeko
gu sortuak geradena,
iñoiz be ez da maite izango
gorroto txarra daukena,
ziur onela etorriko da
gure munduan azkena.
- 10/ Lagun urkoa maite ez bada
zelan bizi gu, anaiak?
Gure artean ugari datoz
munduan sarri ezbaiak.
Ezin bat artu ta gabiz beti
gure beiak eta goiak,
anai artean agertzen diraz
gauza zikin eta loiak,
ez dau balio momentu ontan
asko gure errazoiak.

- 11/ Aitu eziña ugari dago
anai artean munduan,
goian dauzenak egiten dabe
eurak nai daben moduan.
Pobreak zelan bizi direan
ez dabe artzen goguan,
eta txiroak bizimodua
orrela ezin eruan.
nok esan laike pobre tristeak
orain zer egingo duan?
- 12/ Anaitasunik ez dago eta
arrokeria ugari,
goien dagonak ezbear asko
beti bean dagonari.
Dei bat guztiok egin ezkerro
anai biotz gogorrari,
ainbeste zigor ez ezarteko
erru bako pobreari,
ainbeste pena ez emoteko
gure anai ta arrebari.
- 13/ Armak egiten beste batzuek
enpeñatuta daozenak,
geure anaiak tiroz ilteko
aurrerapenik geienak.
Zenbat fameli batzuek il da
besteak pasatzen penak?
Oneik guztiak egiten dabez
biotz gogorra daukenak,
ainbeste kalte egin da oindik
ondradu uste dabenak.

- 14/ Munduan zenbat diru gastatzen
arma berriak sortzeko?
Diru guztiok botaten diraz
geure anaiak galtzeko.
Obe baliraz gure artean
anaitasuna jartzeko,
lege zuzen bat bear da emen
bake eder bat lortzeko,
eta munduan zabal dagozan
gose guztiak kentzeko.
- 15/ Oingo nausiak armak egiten
dirua ta jenioa,
ezin ete lai beste gauzetan
gastau orren balioa?
Armeak beti ekarriten dau
krimena eta lioa,
urrin batetik agintzen dabe
besteen martirioa,
mundu onetan gosez naste
pobreak kalbarioa.
- 16/ Gobiernuak diru ugari
egazkiñak erosteko,
ta tanke asko gero ganera
gerretan lagunduteko.
Gerrako barku be asko egin
urez urrin joateko,
orreik guztiak gura dirade
beti nausi izateko,
anaitasunak guztiak galdu
ezbearrak ekarteko.

- 17/ Ni zarra naz ta orain jatorkit
derrigorrez il bearra,
baña gazteak bidean dabe
emen etorkizun txarra.
Piztu leiteke laster batean
munduan gerra zantarra,
orain lez asko ez dira izango,
orduan gerra bakarra,
au izan leike gure mundu au
amaituteko indarra.
- 18/ Agur onegaz dei egiten dot
arma guztiak saltzeko,
eta anaiok gaur zelan bizi
gogo zuzen bat artzeko.
Gerrarantzako izan leikezan
bide guztiak galtzeko,
pauso txarretan zelan gabiltzan
guztiok ulertutzeko,
deseo on bat agertuten dot
danok ondo bizitzeko.

ESKEAN

Etxe baten alaba bi ziran, bata zartxo eta bestea gaztea. Jakoba zarrena ta Fermina gaztea. Mutil bat doa alaba gaztearen eske.

Mutilla:

Etxeko andra, nator
alaba eskatzen,
Fermina gazteena
ori jat gustatzen.

Ama:

Ze gogoagaz, mutil,
gaztea eskatu?
Jakoba ona da ta
egidazu artu.

Mutilla:

Fermina artuko dot
soldata gaberik,
niretzako munduan
ez dago oberik.

Ama:

Preparatutzen baaiz
Jakoba artzera,
soldata ederra ta
nesk'ona etxera.

Mutilla:

Fermina nai neunke nik
berba egiteko,
nik a gura dodala
aurrez esateko.

Ama:

Jakobaren soldata
noa esatera:
oi bat eta iru auntz,
diruaz batera.

Mutilla:

Soldata ederra da,
guztik eskertzeko;
baña nire gogoa
Fermina artzeko.

Ama:

Zegaitik ez deutsok ik
Jakobai begitu?
Ferminaren bearrak
ak be egingo ditu.

Mutilla:

Esango dautzut orain,
andra, nik egia:
Ferminari gaur deutsot
bota nik begia.

Ama:

Alaba bi dotaz nik
zarra ta gaztia,
lelengo zarra saldu,
urrengo bestia.

Mutilla:

Tratua zerratzeko
ez dot gura zarrik,
segidu bearko dot
oraindik bakarrik.

Ama:

Okasio oberik
ez dok izanduko,
ez ete jak ba gero
ori damutuko?

Mutilla:

Agur emoten dautzut
nik damuz betean,
tratu ez ein bearra
orain bat-batean.

Ama:

Errazoirik ez dok ik
Jakobarentzako,
promesa egin einke
mutilzarrentzako.

EGUN EDERRA DATORRENEAN

Egun ederra datorrenean, goizean argitutean zer pentsatzen edo zer esan bear dogun, abestiak egiñez. Esan leike geu gerala munduan azkenengoak, ze txori guztiak alaitzen dabe mundua, eta guk ezer bere ez.

- 1/ Egun argiak beti
poza munduari,
eskerrak Jaungoikoa
ta zero danari.
Guretzat eindakoak
zuk zenbat mirari,
gogoz begira nago
zeru urdiñari.

- 2/ Zelan ez dogu bear
poztu biotzetik,
eguzki eder ori
ikusiz etxetik?
Barri onak guretzat
ak zeru ertzetik,
eskerrak emotea
ez aitzu goizetik.
- 3/ Izarrak gabaz dizdiz
or zeru baltzean,
guri agur ta agur
oi dira lantzean
Geu barriz mirari oi
goien azaltzean,
ezer akordau gabe
kokolo antzean.
- 4/ Gizonentzako Jaunak
ainbeste mirari,
guk eskertu bere ez
sarritan berari.
Kasorik egin barik
ondo egiñari,
egun on be ez dautsogu
esaten Jaunari.

- 5/ Animali guztiak
alaituten dira,
eguna noz izango
diradez begira.
Alkarren poztasunez
jira eta bira,
geiao eingo leukie
berbadun balira.
- 6/ Txori guztiak diraz
beti olgalari,
agurtuten dausie
pozez egunari.
Goizean asten diraz
gogotik kantari,
ain umore onagaz
danak bertsolari.
- 7/ Bertsolari jarririk
arbola adarrean,
alaituten dabilnaz
pozez ta indarrean.
Txalorik ez da entzun
euren batzarrean,
naiz-ta asko kantatu
egunan aurrean.

8/ Komententzi askogaz
gizona da bizi,
esan lai ez dogula
gauza asko ikusi.
Ez ete da munduan
zeñek erakutsi?
Baña badogu oindik
emen zer ikasi.

TRATUA

Aldi baten, ezkontzarako errekadu egin eutsan mutil batek neska bateri. Mutil au etxeduna zan. Izena Jose eban. Aita eta amagaz bizi zan. Oneik ziran Fermin eta Jakoba. Neskea, barriz, Filomena. Onek be bazitun aita eta ama: Jeronimo eta Frantziska. Gero oneik, aita, ama eta Filomena, joan ziran Joserren etxera, ikustera eta tratura egi-tera, al bazan, ezkontzarako.

- 1/ Josek Filomenari errekadu emonda, onen erantzuna zan: «Neretzat ondo da». Filomenak amari: «Nire aldia oin da, mutil ori gaztea eta etxedun da.

2/ «Ai, ene, Filomena
-amak erantzuna-,
ezkonduteko beraz
billatu laguna.
Naiz-eta mutil ori
izan etxeduna,
geuk be imini bear
emongo doguna».

3/ Arreglatu zirean
biak bereala,
aita eta irurak
joango zirala,
tratua egiteko
mutillaz, al dala,
etxeke andre gero
a izango zala.

4/ Urrengo egunean
goizik itxarturik,
irurentzat bazkari
ez itxi aitzurik.
Ordu biko bidea
basotik arturik,
areintzako etzan an
malda nekosurik.

- 5/ Eldu ziran Joserren
etxeko atera,
amak urten eutsien
agurra ematera.
Asi gura nai eben
zer zan esatera,
laster batu zirean
an seirak batera.
- 6/ Jakobaren berbea
oso agurgarri,
aurki bana artuta
seirak ziran jarri.
Bakotxak euren gauzak
esanik alkarri,
zer izango ete zan
estu eta larri.
- 7/ Jakobak emon eban
berbea ortako:
«Gure etxalde dana
da semeantzako.
Kortea be ganaduz
beterikan dauko,
Filomenantzat bada
suerterik naiko».

- 8/ Frantziskarentzako zan
urrengo berbia:
tratura etorri zala
beren alabia.
Berak uste ebala
etxalde obia,
ondo zuzena zala
Joseren nobia.
- 9/ «Oin bazkaldu daigun ba
bakoitzak berea,
guk maleta ekarri,
auxe da legea».
Alde batera aita,
ama ta alabea,
iñok ez daki zeñek
daukan jan ohea.
- 10/ Ostera oin Frantziskak
artu dau arloa:
«Zazpi milla pezetaz
alaba ondo doa.
Auntz bat arkume bigaz,
oi bat arrea,
bosteun pezeta diraz
onein balioa.

- 11/ Oi bat, armario bat
jarleku birekin,
oia eunezko tapa
edo mantarekin.
Alaba be erropa
barri ta onakin,
pozik izango zare
nire alabakin».
- 12/ Mutillan amak orain
berba bereala:
ofrezimentu ori
oso gitxi zala.
Zarren ardurea be
artu bear dala,
edo diru geiago
ekarri daiala.
- 13/ Filomenaren amak
asarre betean:
«Naikoa aginduta
gagoz oin artean.
Arroea ona ta
diruaz batean,
tratu txarra egin barik
gu joan gaitean».

- 14/ Joserren ama orain
da sublebatua,
bere eskintza ez dala
an ondo artua:
«Geiago aginteaz
zaude beartua,
ez noa ni egiten
alako tratua».
- 15/ Filomenaren amak
badiño atzera:
«Joan ezkeron ondo
gauzak azaltzera,
gu ez gagoz gaur emen
geiao eskeintzera;
nire alabatxoa,
goazen etxera.
- 16/ Berotasunik ez da
ezkontzarako ba,
etorri ez bagina
gaur onañ oba.
Alegin guztiagaz
egin dogu proba,
agur, Jose ta Fermin
ta ama Jakoba».

NESKA MUTIL BI

Erri baten batu ziran neska mutillak, alkarreri bertsoak botaten. Mutilla zan Jazinto, eta neskea Ramona. Onela ziran:

Neska:

Jazinto Txopo, ondo
esan zuk egia:
zeurekin ezkontzeko
nor dozun nobia.

Mutilla:

Neska galanta daukat
planta onekoa:
Josefa Bengoetxe
Arrabalekoa.

Neska:

Lengoan entzun neban
gauza arrigarria:
oin billatu dozula
nobialbarria.

Mutilla:

Nobialbat daukat nik .
gabalagoizean,
ondo sarturik dago
neure biotzean.

Neska:

Lengo illuntzean zu
Mariagaz jarri,
ikusizinduezan
mosukalakarri.

Mutilla:

Neska-mutillak sarri
emon laike mosu,
zeuri emongo deutzut
zeuk guralbadozu.

Neska:

Jazinto bertsolari,
nobialzetako?
Zer gordetzen dozu bal
Josefarentzako?

Mutilla:

Ramona Eskapeko,
preguntak zuk beti;
faltarik ez ete da
zerorren aldeti?

Neska:

Ni oraindikan nago
jaioko moduan,
dana nobioantzat
billatu orduan.

Mutilla:

Alboko andra batek
niri emon parte:
zu ibilli zarala
gabatan aparte.

Neska:

Egirik ezin sortu
orren esateti,
Margari ibilten da
guzurretan beti.

Mutilla:

Zein andra izan dan ba
ez dautzut esango.
Guzurra balitz, penaz
etziñan izango.

Neska:

I aiz mutil zoro bat
burla imintzeko,
auzoko neskatxari
ondrea kentzeko.

Mutilla:

Broman asi gera ta,
Ramona, parkatu;
zure esanagaiti ni
ezin asarratu.

BIZKAIKO BASERRIA

Gure Bizkaian nola bizi garan nai dot azaldu, iru alderditan imiñiagaz erria: alderdi bat baserria, bere mendiakaz; bigarrena industria, bere fabrikakaz; eta irugarrena arrantzale edo itxasoan itxasontzietan dabizanak.

- 1/ Baserriagaz asiten noa
geure lelengo neurria,
neu be baserrikoa naz eta
berantzat bertso barria.
Zelakoa dan esan nai neunke
guretzat Euskal-Erria,
gurasoengandik nola dogun
guregana etorria.

- 2/ **Baserri** oneik osatzen diraz
baso ta mendiarekin,
ortikan nola bizi geraden
danok bear dogu jakin.
Baserrian gu jaio giñan da
berari bear guk ekin,
aita-semeak eta semea
be bere semearekin.
- 3/ Baserrian be ez dago errez
bizimodua artzean,
berezkorikan ez jaku sortzen
baserri zarren ertzean.
Gazte guztiak kalera doaz,
etxea utsik atzean,
zenbat etxe oin dagoz itxita
jabe bakoen antzean?
- 4/ Aita ta ama dagozan arte
zerbait dogu oiñarria,
baña bein zarrak joandakoan
ain bizimodu larria.
Mutillik bada etxean ezin
eroan andra barria,
baserri orrek ala ikusten dau
eriotz negargarria.

5/ Zenbat mutilzar baserrietan!
Orrek ematen dau pena.
Munduak daki mutilzar utsez
segitu ezin laikena.
Zer dan erentzi ikusten dogu
emen mutilzar batena:
fruturik ezin ekarri eta
baserriaren atzena.

6/ Amatxo batek esandakoa
bere semeari baten:
«Ene semetxo laztangarria,
biotzez dautzut esaten:
andra koskorrik ez ete dator
neri poztasun ematen?
Erruki zaitut milagroren bat
ez bada zutzat izaten».

7/ Neska guztiak kalera doaz,
langille bataz ezkondu,
ta aurrentzako bizimodua
kale gorrian atondu.
Baserritikan gure alabak
egin diradez aldendu,
orrela jake euren arnasa
baserri askori kendu.

- 8/ Portaleetan ume txikerrik
iñon be ez da azaltzen,
bistan daukogu gure izatea
orain dagola argaltzen.
Gazte guztiak itxi mendia
eta kalean ugaltzen,
gure baserri maitagarriak
orrelaxe doaz galtzen.
- 9/ Basotik oindik gure lurretan
ataratzen da naikoa,
Bizkaian diru asko sartu da
basoak emondakoa.
Orain semeak piñua bota
len aitak sartutakoa,
pastoreentzat be ondo dator
mendi arbola bakoa.
- 10/ Zenbat gizonek lan egiten dun
baso eta egurrean?
Bizimodua ortikan dabe
askok Bizkaiko lurrean.
Ogibidea nola billatu
beti gagoz bildurrean,
gauza ona da lan egitea
norbere etxetik urrean.

- 11/ Bizkaian diran zerratokiak
erri danetan zabaldu,
laguntasuna onek badauka
baserria ez daiten galdu.
Baserritarrak etxe ondoan
lan apur bat egin al du,
zarrak etxean eta semeak
zerratokira bialdu.
- 12/ Beste asko be joaten diraz
basoan lana artzera,
orrein lana be orain ez da ba
antxiñekoen antzera.
Lanrober baten joaten diraz
lengo oiturak galtzera,
arratsaldean oindik goizetik
eurak badatoz atzera.
- 13/ Irabaziak onak izaten
dira basoko lanetan,
eta ez diraz barriz ganera
lengoak legez penetan.
Motosierrak ebaten dabe,
gruagaz dabe kargetan,
izerdirikan ez da botaten
kamioi on bat betetan.

- 14/ Egur lanetik gaur bizi dira
asko Bizkaiko partean,
piñua guztiz ontzat artu da
baserritarren artean.
Ondo agertu dira lan orreik
ezer ez dan bitartean,
usain txarragaz fabrikan baño
obe lana apartean.
- 15/ Orain batzuek esaten dabe
joandakoan mendira:
«Antxiñekoak au ikusiten
oin etorriko balira,
esango leuke: Gure gaztañak
eta pagoak il dira».
Oingo munduan ezin lai egon
berreun urtean begira.
- 16/ Amaitzen noa bertso lan au be
nik maitasunez jarria,
indartu nairik biotz-biotzez
euskeraren oiñarria.
Zaindu daigun ba bene-benetan
aitagandik ekarria,
guztiok didar ein daigun: «Gora
baserri maitagarria!»

BIZKAIKO INDUSTRIA

- 1/ Banoa orain ase gurarik
gure bertso egarriak,
esanez zelan diraden gure
industri zar ta barriak.
Euren anparuz Bizkaian eunka
fameli maitagarriak,
kale gorrian besterik barik
ari begira jarriak.

- 2/ Zenbat lantegi diran Bizkaian
lantoki askotakoak,
baña batzuek euren artean
diraz badezpadakoak.
Ezin jakiñik zer eingo daben
orain badiraz naikoak,
orretzek dakaz etxe askotan
pena ta asarre askoak.

- 3/ Langille asko badiraz orain
kezkaz ta bildur antzean,
euren etxean zer izango dan
lantoki ori galtzean.
Sarri askotan fabrikak estu
bide barriak artzean,
pozikan ezin bizi bildur oi
fameli baten sartzean.
- 4/ Larritasuna gero sarritan
etorten jake burura
euren fabrikaz zer izango dan
fameliak jakin gura.
Andrea penaz betean eta
gizonak barriz ardura,
pozikan ez dau izango bizi
danak olango modura.
- 5/ Ze gauza andia langilleentzat
egotea lan barruan,
lantegi ortan ziurtasuna
danentzat dagon orduan!
Lan egin eta aurrerantza be
itxaropena beruan,
pozez norbera ta famelia
mantendutzeko eruan.

- 6/ Oporrak bere egiten diraz
sari gitxi eskuratzeko,
len penaz eta orain ganera
egun batzuek galtzeko.
Orain artean egon diranak
estu ta pobre antzeko,
loteri orreik elduten diraz
pobrea oso ondatzeko.
- 7/ Beste asko be lan barik diraz,
auxe da negargarria,
ezbear ori iñok ez daki
nondik dogun ekarria.
Gizon gazte bat zelan laike ba
zigor orregaz jarria?
Esperantzarik iñondik ez ta
pobre ta errukarria.
- 8/ Zer egiten dau Gobiernuak?
Zer egiten dau erriak,
Euskal-Errian ez konpontzeko
gure egoera larriak?
Len lan gabeko asko dago ta
gazteak datoz barriak,
kastigu orreik ete dira ba
Jaunak mundura jarriak?

- 9/ Esan laike ba mundu onetan
danok anaiak gerala,
baña bestetik begiratuta
esan lai guzurra dala.
Agintaria bere berbetan
beti da eskuzabala,
baña esan laike promesa andiok
sarri egi ez dirala.
- 10/ Lana guztiok merezi dogu,
ez da inõngo eskerrik,
lanpostu orreik ezin leiz artu
entxufeagaz bakarrik.
Ogia danok bear dogu ta
ez gera etorri alperrik,
pobrea danak ez dau merezi
mundu ontan zoritxarrik.
- 11/ Fabriketako gizon batzuek
diraz inbirigarriak,
arkondarea plantxatua ta
goiko maillatan jarriak.
Sarri askotan irakurriaz
egunkariko barriak,
fabrika ori bizi dan arte
ez diraz errukarriak.

12/ Alde andiak diraz munduan
anai batetik bestera,
ala guztiok mundu onetan
aman semeak ez gera?
Oin alkarregaz, il da gero be
egon bearako batera,
saia gaitetz ba, pobre ta aberats,
danok anai izatera.

13/ Ze gauza ederra goizero joan
lantoki eder batera,
gustora norbere anaiekin
produzio ematera,
anaiak lakoxeak direan
lagun jatorren artera,
ta famelia sostenitzeko
diru ona ekartera!

14/ Munduak egin bear leuke ba
modu onetara jarri,
motibo zer dan ez dakigula
txarto urteten dau sarri.
Zergaitik esku onez ez artu
bakean datorrenari?
Lan egiteko gertu dago ta
emon ogia berari.

- 15/ Alegin danok egin daigun ba
mundua arteztuteko,
danok baxotxa beren lekuan
bear dan lez egoteko.
Derrigorrezko toki bat danok
antxe lana egiteko,
ta poz apur bat euki daigula
mundu ontan biziteko.
- 16/ Amaitzen noa lantegiakaz,
uste dot dala egia,
ta Jaungoikoak emongo al dau
langilleentzat argia!
Bizimodua eroateko
ori ez da geiegia,
eskuak luza alkarri eta:
»Gora gure lantegia!».

BIZKAIKO ARRANTZALEAK

- 1/ Arrantzaleak zelan diraden
oin asiko naiz berbetan,
euren barria neuk dakidana
agertuaz bertsoetan.
Baportxo baten alkarten diraz,
batera lan egin bertan,
sarritan itxaso txarra eta
esturik eta otzetan.

- 2/ Arratsaldean gabarantz urten
arrañak arrapatzeko,
eta goizean arrain oneikaz
euren errian sartzeko.
Arrain freskoa eukirik olan
egunez ori saltzeko,
zenbat sufritu bear munduan
diru apur bat artzeko!

3/ Lengo arratsaldean nengoan
ni Bermioko portuan,
zenbat itxaso-ontzik urteten
eben kontatzen nituan.
Ain asko ziran itxasorantza
alkarregaz segituan,
azkenez zenbat joan zirean
ez neban euki kontuan.

4/ Gaba guztia egin badabe
itxasoz uran ganean,
alan da bere barriz pozagaz
itxaso trankil danean.
Baña arraiña gitxi atara
badabe beren lanean,
gaba galdu ta poztasun barik
andikan datozeanean.

5/ Ille batzuek emoten dabez
onela gabaz urtenik,
barkua bete eziñik pasa
gau osoa edo geienik.
Baña batzutan ezin esan ba
irabazten ez dabenik,
merezi bere ondo dabela
ori esango neuke nik.

6/ Emengo denporaldia amaitu,
badoaz Atlantikora,
etorri barik egingo dabe
an illabetetik gora.
Bear dan beste jan da uragaz
joan etxetik kanpora,
etxekorikan ikusi barik
pasa ainbeste denpora.

7/ Euren ontzia betatu edo
euren janak amaituaz,
aldikada ori andik eginda
etxera etorten diraz.
Ekarrikoa emen utsitu,
atzera barrira doaz,
lengo moduan preparatuta
gasoil, jan eta uragaz.

8/ Santa Eufemia izaten dabe
urteroko jai eguna,
egun ortako arrantzalea
beti etorten jakuna.
Egun batzuek ondo pasatu,
oi da desio doguna,
neure partetik biotz-biotzez
bakea ta osasuna.

- 9/ Jai gozo orreik amaitu eta
barrero doaz atzera,
beste denporaldi bat egiten
len egindako antzera,
gizon guztiak ondo aituta
al danik geien batzera,
euren ontzia ondo bete ta
errian pozez sartzera.
- 10/ Gero osterera etorten diraz
Gabonak datozanean,
jai orreik pozez pasatuteko
baturik erri danean.
Zer pozgarria itxasontzia
legorreatzen danean,
ta gero aita ta seme-alabak
besarkatzen diranean!
- 11/ Beste batzuek Bermion diraz
lebatzak arrapateko,
egun danetan gerturik dagoz
euren lana egiteko.
Sarritan oleatu andiak
txalupa ortan egoteko,
munduan zenbat neke dagoan
ogi apur bat jateko!

- 12/ Laguntasuna bear leukie
arrantzaleak munduan,
arriskuagaz egun danetan
nor dabil euren moduan?
Euskadin Gobernuak ori
ete dau bere goguan?
Orrei tokatzen jaken dirua
bestek ezin lai eruan.
- 13/ Arrantzaleak beste batzuek
Dakarrera diraz juan,
denporaldi bat egingo dabe
urten gaberik barkuan.
Fin eta zintzo aleginduaz
anai onaren moduan,
danak bat einda lan egiñagaz
bizimodua eruan.
- 14/ Denporaldi bat an egin eta
etorten diraz etxera,
beren etxeko fameliagaz
egun batzuk pasatzera.
Deskantsu ori merezi dabe
guztiz derrigor antzera,
egunok labur egiten jakez
ta joan bear atzera.

- 15/ Arrantzaleen bizimodua
mizkeririkan bakua,
gazterik asi eta bizitza
orreik dabe olakua.
Urte guztian izaten dabe
euren etxetzat barkua,
besterentzako egiten dabe
gure anaiok naikua.
- 16/ Arrantzaleok zaindu daizela
urte guztian bakeak,
suerte ona emon daioela
nire agur emateak.
Iñorentzako kalterik ez dau
esker oneko izateak,
Jaunan argiak bete daizela
euren etxeko atearak.

ARKIBIDEA

Itzaurrea	7
Ni neu nor naizen	11
Anai arteko gerratea.....	17
Gernikako bonbaketa	37
Erriaren negarra	43
Anai arteko gerrate ostera bere.....	51
Simon Bernardo de Zamakola'ri	65
Gorbaie mendia.....	71
Urkiolara	75
Aita Domingo Iturrate.....	81
Balentin Enbeita zanari	87
Dimako zezenak	93
Jose Migel Barandiaran, euskal kulturaren aitalen.....	103
Estualdia	113
Zergaitik ez?	117
Ezkonduen billera	121
San Antonio egunean	127
Zarraren esperantza.....	131
Jon Azkueta txapeldunari	137
Ezkontza batean	145

Botazioak.....	149
Maritxuri.....	155
Dimako torrea.....	161
Danok ondo biziteko	165
Eskean.....	173
Egun ederra datorrenean	177
Tratua.....	181
Neska-mutil bi.....	187
Bizkaiko baserria.....	191
Bizkaiko industria.....	197
Bizkaiko arrantzaleak	203

ORAINDAIÑO KO LIBURUAK
117'garrenetik aurrera.

- 117-118: *B. Enbeita*: Nere apurra.
120-121-122: *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
123-124-125: *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126: *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127: *M. Arozamena*: Nere aldia.
128: *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129: *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132: *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133: *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134: *J. M. Arrizabalo, A. Zavala*: Baso-mutillak. (*Aitua*).
135: *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136: *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
137-138: *Ataño*: Txantxangorri kantaria. (*Aitua*).
139: *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140: *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141: Bertsolari-txapelketa nagusia, 1980. (*Aitua*).
142: *A. Zavala*: Txabolategi, Elgoro eta Leunda bertsolariak.
143: *A. Zavala*: Nork bere bidea, I. (*Aitua*).
144: *A. Zavala*: Nork bere bidea, II. (*Aitua*).
145: *A. Zavala*: Nork bere bidea, III. (*Aitua*).
146: *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147: *Ataño*: Txori. (*Aitua*).
148: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, I. (*Aitua*).

Nor garan azaldu


- 149: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, II. (*Aitua*).
150: *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak, III. (*Aitua*).
151: *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari. (*Aitua*)
152: *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153: *J. K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua.
154: *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak I.
155: *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak II.
156: *F. Artola «Bordari», R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157: *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158: *Mari Treku*: Mattin, nere gizona. (*Aitua*)
159: *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160: *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161: *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162: *J. M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*)
163: *J. C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164: *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak, I.
165: *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak, II.
166: *M. Manterola*: Lore apal bat.
167: *J. M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
168: *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsoan.
169: *Basarri*: Kezka-giroan.
170: *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171: *Txomin Garmendia*: Bertsolari-kurpilla.
172: *S. Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
173: *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
174: *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan, I.
175: *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan, II.
176: *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.
177: *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.
178: *Basarri*: Bertsolaritzari buruz.
179: *Ataño*: Espetxeko negarrak.
180: *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsoan, I.
181: *Ataño*: Zigorpean.
182: *M. Ostolaiz*: Oroipen-kutxa.
183: *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsoan, II.
184: *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria, I.
185: *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria, II.
186: *A. Zavala*: Neska-mutillen arteko bertsoak.
187: *A. Zavala*: Ezkondu bearreko bertsoak.
188: *Txomin Garmendia*: Beltzak eta zuriak mendian ardiak.
189: *Ataño*: Eltzaorra.
190: *Pablo Zubiarrain*: Ia kantatuz bezela.
191: *Basilio Pujana*: Egi batzuek aixetaratzen.
192: *Ataño*: Odol-kutsua.
193: *Ataño*: Maitasunaren lanak.

Oraindaiñoko liburuak

- 194: *Pablo Zubiarrain*: Gaziak eta gozoak.
- 195: *Bartolo Ayerbe*: Nere mundualdia.
- 196: *Ataño*: Etorkizuna.
- 197: *Ramos Azkarate*: Ijitoen kontratuba eta abar.
- 198: *Erramun Etchebarne*: Erramun harginaren oroitzapenak.
- 199: *Jose Maria Etxaburu*: Neure lau urteko ibillerak.
- 200: *Jose Azpiroz*: Arbol zarraren kimuak.
- 201: *Ataño*: Maite itzazute etsaiak.
- 202: *A. Zavala*: Frantziako Iraultza eta Konbentzioko gerra.
- 203: *Jose Azpiroz*: Gogoz kontrako pausoak.
- 204: *L. Rezola «Tximela»*: Bakardadeko ametsak, I.
- 205: *L. Rezola «Tximela»*: Bakardadeko ametsak, II.
- 206: *J. Lete «Ibai-Ertz»*: Orrela ziran gauzak.
- 207: *Ataño*: Aztia usnari.
- 208: *F. Etxebarria*: Nor garan azaldu.



1051045
G-128/67



AUSPOA
LIBURUTEGIA